Eguneraketa
2012/01/31
Actualización

# §D2

## NORMA FORAL 2/2011, DE 24 DE MARZO, DE CARRETERAS DE BIZKAIA

## BIZKAIKO ERREPIDEEI BURUZKO MARTIAREN 24KO 2/2011 FORU ARAUA

# NORMA FORAL 2/2011, DE 24 DE MARZO, DE CARRETERAS DE BIZKAIA

(BOB nº 61, de 29 de marzo de 2011)

## PREAMBULO

En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía, artículo 7 a) punto 8 de la Ley 27/83, de 25 de Noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en el Decreto Foral 17/85 de 5 de Marzo, dictado en desarrollo de la citada Ley, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia tienen la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, sin perjuicio de las facultades que la Comunidad Autónoma de Euskadi ostente a fin de coordinar las distintas redes de carreteras de cada uno de los Territorios Históricos, dictándose al amparo de esta distribución de competencias la Ley 2/1989, de 30 de Mayo, del Parlamento Vasco, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

Por otra parte la Norma Foral 3/1987, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece en el artículo 7.1 a) que corresponde a las Juntas Generales dictar las Normas Forales del carácter general referentes a materias que sean competencia de los Territorios Históricos, atribuyendo los artículos 8.1 b) y 17. 11º) de la misma Norma Foral a la Diputación Foral la iniciativa normativa y la aprobación de los proyectos de Norma Foral para su remisión a las Juntas Generales.

La Norma Foral 2/1993, de 18 de febrero, reguló la planificación, proyección, modificación, construcción, conservación, financiación, uso y explotación de las carreteras forales de Bizkaia y las condiciones y limitaciones de uso del suelo adyacente.

A través de esta Norma Foral el Territorio Histórico se dotó de un instrumento jurídico de la máxima importancia para el pleno ejercicio de las competencias que le reconocen el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el artículo 7 a) apartado 8 de la ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Transcurridos más de quince años desde la aprobación de dicha Norma, resulta conveniente revisar algunos aspectos de la misma, al objeto de mejorar su contenido y adaptarlo a los cambios normativos acaecidos, a las necesidades del territorio y de su ciudadanía.

En concreto, con la presente Norma Foral se consolida la prevalencia del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia sobre las determinaciones del planeamien-

# BIZKAIKO ERREPIDEEI BURUZKO MARTIAREN 24KO 2/2011 FORU ARAUA

(61. zenbakidun BAO, 2011ko martxoaren 29koa)

## HITZAURREA

Autonomi Estatutuko 10.34 artikuluan, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7 a) artikuluko 8. paragrafoan eta lege hori garatzeko emandako martxoaren 5eko 17/1985 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeek bakarreko eskumena dute Bizkaiko errepide eta bideen arloko plangintza egiteko, haien proiektuak egiteko, errepide-bideok eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatzeko, zein errepide-bideon erabilera kudeatzeko eta haiek ustiatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde historiko bakoitzeko errepide-sareak koordinatzeko dituen eskumenak gorabehera. Bada, eskumen horren banaketaren babesean, Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 30eko 2/1989 Legea eman zuen; lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen da.

Bestalde, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 7.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzar Nagusiei dagokie lurralde historikoen eskumeneko arloei buruzko foru arauak ematea, eta, foru arau horretako 8.1.b) eta 17.11) artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru arauen proiektuen arloan ekimena izatea eta proiektuok onartzea, Batzar Nagusiei bidaltzeko.

Otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauak Bizkaiko foru errepideen plangintza, proiekzioa, aldaketa, eraikuntza, kontserbazioa, finantziazioa, erabilera eta ustiapena arautu zituen, bai eta alboko lurzoruaren erabileraren baldintzak eta mugak ere.

Foru arau horren bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoak garrantzi goreneko tresna juridiko bat eskuratu zuen, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10.34 artikuluak eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7 a) artikuluko 8. paragrafoak aitortzen dizkioten eskumenak osorik erabiltzeko.

Araua onartu zenetik hamabost urte baino gehiago igaro ondoren, komeni da arauaren alderdi batzuk berrikustea, batetik, haren edukia hobetzeko, eta, bestetik, arau hori gertatutako aldaketetara zein lurraldearen eta herritarren beharretara egokitzeko.

Zehatzago, foru arau honen bidez, Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialaren nagusitasuna finkatzen da hirigintza-plangintzako tresnen artean; errepideei

to urbanístico; se concreta el procedimiento de aprobación de los Proyectos de carreteras, se revisa el régimen de usos de las distintas zonas de protección de las carreteras; se establece un nuevo régimen jurídico para los accesos, se adapta la tramitación de las autorizaciones y legalizaciones a los cambios introducidos en la normativa reguladora del procedimiento administrativo, se actualiza el régimen de las infracciones y sanciones así como el procedimiento para proceder a las transferencias de titularidad de las carreteras

buruzko proiektuak onartzeko prozedura zehazten da; errepideen babes-eremuak erabiltzeko araubidea berrikusten da; sarbideetarako araubide juridiko berri bat ezartzen da; baimen eta legalizazioen izapideak administrazio-prozeduran egindako aldaketetara egokitzen dira, eta arau-hauste eta zehapenen araubidea eguneratzen da, bai eta errepideen titulartasuna eskualdatzeko prozedura ere.

CAPITULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto

Es objeto de la presente Norma Foral el establecimiento de las disposiciones que han de regular la planificación, proyección, modificación, construcción, conservación, financiación, uso y explotación de las carreteras forales de Bizkaia, así como establecer las condiciones y limitaciones de uso del suelo adyacente.

### Artículo 2. Ámbito material de aplicación

1. Se consideran carreteras las vías de dominio y uso público proyectadas y construidas para la circulación de vehículos automóviles.

2. No tendrán la consideración de carreteras:

a) Los caminos de servicio, entendiendo por tales los construidos como elementos auxiliares o complementarios de las actividades específicas de sus titulares.

b) Los caminos construidos por las personas privadas con finalidad análoga a los caminos de servicio.

c) Las calles que componen la red interior de los núcleos de población, siempre que no se hallen expresamente calificadas como tramos urbanos de carreteras.

d) Los carriles habilitados exclusivamente para la circulación de bicicletas.

3. Cuando lo exija el interés general deberán abrirse al uso público los caminos de servicio. En este caso habrán de observar las normas de utilización y seguridad propias de las carreteras y se aplicará, si procede, la legislación de expropiación forzosa a efectos de indemnización.

### Artículo 3. Jerarquización y clasificación de carreteras

1. Las carreteras se jerarquizarán, en atención a su funcionalidad, en las siguientes redes:

- Red de interés preferente (roja)
- Red básica (naranja)

I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea

Foru arau honen xedea da ezartzea Bizkaiko foru errepideen plangintza, proiektua, aldaketa, eraikuntza, kontserbazioa, finantziazioa, erabilera eta ustiapena nahiz alboko lurzoruaren erabileraren baldintzak eta mugak arautuko dituzten xedapenak.

### 2. artikulua. Aplikazio-eremu materiala

1. Ibilgailu automobilen zirkulaziorako proiektatu eta eraikitako jabari eta erabilera publikoko bideak jotzen dira errepidetzat.

2. Honako hauek ez dira errepidetzat hartuko:

a) Zerbitzu-bideak; titularren jarduera espezifikoen bide laguntzaile edo osagarri gisa eraikitakoak jotzen dira halakotzat.

b) Zerbitzu-bideen antzeko helburuarekin partikularrek eraikitako bideak.

c) Herrien barneko sarea osatzen duten kaleak, baldin eta ez badaude berariaz errepideen hiri barruko bide-tartetzat jota.

d) Bizikleten zirkulaziorako soilik prestatutako bideak.

3. Interes orokorra dela-eta beharrezkoa denean, zerbitzu-bideak ireki behar izango dira, jendeak erabili ahal izateko. Kasu horretan, erabilera eta segurtasun dela-eta errepideei dagozkien arauak bete behar dira, eta, hala behar denean, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria aplikatuko da, kalte-ordainak ezartzeko.

### 3. artikulua. Errepideen hierarkizazioa eta sailkapena.

1. Funtzionaltasunaren arabera, honako hierarkizazio hau ezartzen da errepide-sareen artean:

- Lehentasunezko sarea (gorria)
- Oinarrizko sarea (laranja)

- Red complementaria (azul)
- Red comarcal (verde)
- Red local (amarilla)

2. Por sus características las carreteras se clasifican en autopistas, autovías, vías para automóviles, carreteras multicarriles, y carreteras convencionales.

3. Son autopistas las carreteras que están especialmente proyectadas, construidas y señalizadas como tales y reúnan las siguientes características:

a) Servir para uso exclusivo de vehículos automóviles.

b) No tener acceso a las propiedades colindantes.

c) No cruzar a nivel ninguna otra senda, vía, línea de ferrocarril, ni ser cruzada a nivel.

d) Constar de distintas calzadas para cada sentido de circulación separadas entre sí.

4. Son autovías las carreteras que reúnan las siguientes características:

a) Servir para uso de vehículos automóviles de manera exclusiva en determinados tramos.

b) El acceso a las propiedades colindantes esté limitado.

c) No cruzar a nivel a ninguna otra senda, vía, línea de ferrocarril, ni ser cruzada a nivel.

d) Constar de distintas calzadas para cada sentido de la circulación separadas entre sí.

5. Son vías para automóviles las carreteras que reúnan las siguientes características:

a) Servir para uso exclusivo de la circulación de automóviles.

b) Con limitación total de acceso a las propiedades colindantes.

c) No cruzar a ninguna otra senda, vía, línea de ferrocarril, ni ser cruzada a nivel.

d) Constar de una sola calzada para cada sentido de circulación.

6. Son carreteras multicarriles aquellas carreteras que cumplan los siguientes requisitos:

a) Servir para uso exclusivo de vehículos automóviles en determinados tramos.

b) El acceso a las propiedades colindantes esté limitado.

- Sare osagarria (urdina)
- Eskualde-sarea (berdea)
- Sare lokala (horia)

2. Ezaugarrien arabera, errepideak honela sailkatzen dira: autobideak, autobiak, automobil-bideak, errei anitzeko errepideak eta errepide arruntak.

3. Autobideak dira autobide izateko bereziki proiektatu, eraiki eta seinaleztatutako errepideak; horrez gainera, ezaugarri hauek izan behar dituzte autobideek:

a) Ibilgailu automobilentzat bakarrik izatea.

b) Errepidearekin mugakide diren jabetzetarako sarbiderik ez izatea.

c) Errepideak ez zeharkatzea maila berean dagoen beste bidexka, bide edo trenbide bat, eta haiek zeharkatua ere ez izatea.

d) Zirkulaziorako noranzko bakoitzak galtzada batzuk izatea, elkarrengandik bereiziak.

4. Honako ezaugarri hauek izan behar dituzte autobiek:

a) Tarte jakin batzuetan ibilgailu automobilentzat soilik izatea.

b) Mugakide diren jabetzetarako sarbidea mugatuta izatea.

c) Errepideak ez zeharkatzea maila berean dagoen beste bidexka, bide edo trenbide bat, eta haiek zeharkatua ere ez izatea.

d) Zirkulaziorako noranzko bakoitzak bere galtzada izatea, bata bestetik bereizia.

5. Honako ezaugarri hauek izan behar dituzte automobilbideek:

a) Ibilgailu automobilentzat soilik izatea.

b) Mugakide diren jabetzetarako sarbidea erabat mugatuta izatea.

c) Errepideak ez zeharkatzea maila berean dagoen beste bidexka, bide edo trenbide bat, eta haiek zeharkatua ere ez izatea.

d) Galtzada bakarra izatea zirkulazioaren noranzko bakoitzerako.

6. Honako ezaugarri hauek bete behar dituzte errei anitzeko errepideek:

a) Errepide-tarte jakin batzuetan ibilgailu automobilentzat bakarrik izatea.

b) Mugakide diren jabetzetarako sarbidea mugatuta egotea.

c) Pueda existir discontinuidad en el flujo de tráfico, por presencia de cruces al mismo nivel.

d) Deberán constar de dos o más calzadas. Los sentidos de circulación estarán separados entre sí en determinados tramos.

7. Son carreteras convencionales las que no reúnan las características propias de las anteriores.

8. Son áreas de servicio las zonas colindantes con las carreteras diseñadas expresamente para albergar instalaciones y servicios destinados a la cobertura de las necesidades de la circulación, pudiendo incluir: estaciones de servicio, hoteles, restaurantes, talleres de reparación y otros servicios análogos destinados a facilitar la seguridad de los usuarios de la carretera.

9. Son estaciones de servicio aquellos establecimientos en los que se desarrolle la actividad de distribución al por menor de carburantes y combustibles petrolíferos mediante su venta al público, así como cualquier otro servicio relacionado con la cobertura de las necesidades del automóvil y de la circulación.

10. Son ramales de enlace las vías que unen las autopistas, autovías o vías para automóviles con la carretera Foral a la que sustituyen o complementan, posibilitando los distintos movimientos de los vehículos. Así mismo, se considera ramal desde la convergencia de vías unidireccionales hasta la intersección con la carretera foral, y el tramo de la carretera sobre la que se converge afectado por la propia intersección.

11. Se denomina intercambiador modal aquella infraestructura destinada a favorecer el intercambio modal entre los modos de transporte público con el vehículo privado, consistiendo en aquellos espacios destinados a la circulación, aparcamiento, espera de los vehículos, públicos y privados, así como las instalaciones destinadas al servicio, confort, circulación y funcionalidad de los usuarios de dichos modos.

## Artículo 4. Redes de carreteras

1. A los efectos de esta Norma Foral, las carreteras de Bizkaia se jerarquizarán en atención a su funcionalidad y ámbito espacial, con las siguientes características:

A) Ámbito metropolitano:

a) La Red Interés Preferente:

- Canaliza viajes de largo recorrido:

— de paso, o

— de origen / destino en el Área Metropolitana

- Sirve de acceso a grandes terminales de transporte:

— Puerto,
— Aeropuerto,

c) Zirkulazio-fluxuan etenak eduki ahal izatea, maila berean bidegurutzeak egoteagatik.

d) Bi galtzada edo gehiago izatea. Zirkulaziorako noranzkoak elkarrengandik bereizita egotea tarte jakin batzuetan.

7. Errepide arruntak dira aurrekoen ezaugarriak betetzen ez dituztenak.

8. Zerbitzuguneak errepideekin mugakide diren eremu batzuk dira, bereziki diseinatuta daudenak zirkulazioaren beharrak betetzeko instalazioak eta zerbitzuak jasotzeko. Honako hauek egon daitezke zerbitzuguneetan: gasolindegiak, hotelak, jatetxeak, ibilgailuak konpontzeko tailerrak eta haien antzeko beste zerbitzu batzuk, errepidearen erabiltzaileen segurtasunerako direnak.

9. Gasolindegiak establezimendu batzuk, jendeari petrolio-erregaiak txikizka saltzen dizkiotenak, bai eta automobilen zein zirkulazioaren beharrak betetzeko beste edozein zerbitzu ematen dutenak ere.

10. Lotura-adarrek autobideak, bideak edo automobilbideak lotzen dituzte adarrok ordezten edo osatzen duten foru errepidearekin; hala, ibilgailuei aukera ematen diete egin beharreko mugimenduak egiteko. Horrez gainera, norabide bakarreko bideen konbergentziatik foru errepidearekiko gurutzaguneraino doan zatia jotzen da adartzat, eta, horrez gainera, konbergentzia gertatzen den errepide-tartea, gurutzaguneak ukitua.

11. Garraio-aldagunea azpiegitura mota bat da, garraiobide publikoen eta ibilgailu pribatuaren arteko trukaketa egiteko aukera ematen duena. Aldagune horrek zirkulatzeko, aparkatzeko eta ibilgailu publiko zein pribatuei itxaroteko guneak ditu, bai eta garraiobide mota horien erabiltzaileen zerbitzu, erosotasun, zirkulazio eta funtzionaltasunerako instalazioak ere.

## 4. artikulua. Errepide-sareak

1. Foru arau honen ondorioetarako, Bizkaiko errepideen hierarkizazio bat egingo da, haien funtzionaltasunaren eta eremuaren arabera, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta:

A) Metropoli-eremua:

a) Lehentasunezko sarea:

- Ibilbide luzeko bidaiak bideratzen ditu:

— bertatik igarotzeko direnak, edo

— metropoli-eremua dutenak sorburu edo jomuga

- Garraio-terminal handietarako sarbideak eskaintzen ditu:

— Portuetara,
— Aireportuetara,

— Intermodal, y
— Zonas logísticas para el transporte de mercancías

b) La Red Básica:

● Canaliza los flujos entre zonas orbitales y anulares del Área Metropolitana, tanto del transporte público viario como del transporte privado.

● Sirve de soporte del mallado de itinerarios de alta capacidad permitiendo la gestión de la Red.

c) La Red Complementaria:

● Conexiona los itinerarios de alta capacidad de las Redes Básica y de Interés Preferente con las arterias urbanas.

● Contribuye a la creación de la Metrópoli integrando suelos y aglomeraciones inconexas.

● Pone a disposición suelos de oportunidad.

● Acceso a grandes generadores de movilidad.

d) La Red Comarcal:

● Favorece la accesibilidad entre áreas orbitales en un ámbito menos urbanizado.

● Sirve de alternativa viaria a la Red Básica, como aliviadero frente a congestiones extraordinarias.

● Accesos a equipamientos supramunicipales.

● Contribuye a la accesibilidad a todo tipo de suelos.

● El progresivo desarrollo urbano transformará dichas carreteras en calles.

e) La Red local estará integrada por las carreteras forales que no pertenezcan a ninguna de las redes anteriores.

B) Resto territorio:

a) La Red de Interés Preferente:

● Canaliza los viajes de largo recorrido:

— de paso, o

— de origen o destino

— en el Área Metropolitana

— en el Resto del Territorio

— Garraio-aldaguneetara, eta
— Merkantziak garraiatzeko zona logistikoetara

b) Oinarrizko sarea:

● Metropoli-eremuaren zona orbital eta anularren arteko fluxuak bideratzen ditu, errepide bidezko garraio publiko zein pribatuenak.

● Ahalmen handiko ibilbide-ehunaren euskarria da, eta aukera ematen du sarea kudeatzeko.

c) Sare osagarria:

● Oinarrizko eta lehentasunezko sareen ahalmen handiko ibilbideak hiri-arteriekin lotzen ditu.

● Metropolia sortzen laguntzen du, loturarik gabeko lurzoruak eta aglomerazioak integratzen ditu eta.

● Aukerako lurzoruak jartzen ditu eskuragarri.

● Mugikortasun sortzaile handietarako sarbidea da.

d) Eskualde-sarea:

● Zona orbitalen arteko joan-etorriak errazten ditu, hain urbanizaturik ez dagoen eremu batean.

● Oinarrizko sarearen ordezko bidea da, ezohiko pilaketak arintzen baititu.

● Udalez gaindiko ekipamenduetarako sarbideak eskaintzen ditu.

● Edozein lurzoru motatara heltzen laguntzen du.

● Hiri barruko garapen etengabeak kale bihurtuko ditu sare honetako errepideak.

e) Aurreko sareen barruan ez dauden foru errepideek osatzen dute sare lokala.

B) Gainerako eremua:

a) Lehentasunezko sarea:

● Ibilbide luzeko bidaiak bideratzen ditu:

— bertatik igarotzeko direnak, edo

— sorburu edo jomuga hauetan dutenak:

— metropoli-eremuan,

— gainerako eremuan edo

— en grandes terminales de transporte.

b) La Red Básica:

● Favorece la accesibilidad de las comarcas hacia los ejes de Interés Preferente.

● Contribuye a la vertebración del Territorio.

c) La Red Comarcal:

● Conecta comarcas limítrofes.

● Acceso a puertos pesqueros.

● Contribuye al mallado viario.

● Favorece la accesibilidad a suelos.

● Favorece la interconexión entre municipios próximos.

d) La Red local estará integrada por las carreteras forales que no pertenezcan a ninguna de las redes anteriores.

2. El conjunto de las redes de interés preferente, básica, complementaria y comarcal se denominará Red Funcional.

3. Son carreteras incluidas en la Red Transeuropea las autopistas y carreteras de alta calidad que integran la Red de Carreteras de Bizkaia y son calificadas como tales en el anexo I, sección 2, de la Decisión nº 1692/96/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de julio de 1996, sobre las orientaciones comunitarias para el desarrollo de la red transeuropea de transporte, o que puedan serlo en el futuro, en la medida que:

● Desempeñen un papel importante en el tráfico a larga distancia o

● Permitan en los ejes integrados en la red, la circunvalación de los principales nudos urbanos o

● Garanticen la interconexión con otros modos de transporte o

● Permitan unir las regiones enclavadas y periféricas con las regiones centrales de la Comunidad europea.

## Artículo 5. Catálogo de Carreteras

1. Son carreteras forales de Bizkaia las incluidas en la Red de Carreteras de este Territorio Histórico. La Red quedará inicialmente establecida mediante la presente Norma Foral y podrá ser modificada mediante Decreto Foral de la Diputación Foral a propuesta del Diputado/a Foral de Obras Públicas.

2. La Red de Carreteras de Bizkaia deberá ser necesariamente modificada en los siguientes supuestos:

— garraio-terminal handietan.

b) Oinarrizko sarea:

● Eskualdeetatik lehentasunezko interesa duten ardatzetara joaten laguntzen du.

● Lurraldea egituratzen laguntzen du.

c) Eskualde-sarea:

● Eskualde mugakideak lotzen ditu.

● Arrantza-portuetarako sarbidea ematen du.

● Errepide-ehuna sortzen laguntzen du.

● Lurzoruetara iristen laguntzen du.

● Udalerri hurbilen arteko lotura errazten du.

d) Aurreko sareen barruan ez dauden foru errepideek osatzen dute sare lokala.

2. Lehentasunezko sareak, oinarrizko sareak, sare osagarriak eta eskualde-sareak sare funtzionala osatzen dute.

3. Europa barneko errepide-sarean honako hauek sartzen dira: Bizkaiko errepideen sareko kalitate handiko autobide eta errepideak, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 23ko 1692/96/EE Erabakiko 2. ataleko I. eranskinean halakotzat jota badaude (erabaki hori Europa barneko errepide-sarea garatzeko Europar Batasunaren orientabideei buruzkoa da), edo baldin eta etorkizunean kalitate handikoak izan ahal izango badira, honako hauek betez gero:

● joan-etorri luzeak egiten dituen trafikoan eginkizun handia izatea, edo

● sarean integraturiko ardatzetan hirigune nagusiak inguratzeko aukera ematea, edo

● beste garraiobide batzuekiko lotura bermatzea, edo

● enklabeak eta eskualde periferikoak Europar Batasuneko erdialdeko eskualdeekin lotzeko aukera ematea.

## 5 artikulua. Errepideen katalogoa

1. Bizkaiko foru errepideak dira lurralde historiko horretako errepide-sarean sartuta daudenak. Hasieran, foru arau honek ezarriko du sarea; hala ere, Foru Aldundiaren foru dekretu bidez aldatu ahal izango da, Herri Lanen foru diputatuak proposamena eginda.

2. Bizkaiko errepideen sarea ezinbestez aldatu behar da kasu hauetan:

a) Por cambio de titularidad de las carreteras existentes en virtud de acuerdo mutuo de las Administraciones Públicas interesadas.

b) Por la construcción por la Diputación Foral de nuevas carreteras integradas en un itinerario de interés preferente.

3. En ningún caso tendrán la consideración de nueva carretera los desdoblamientos de calzada, los acondicionamientos de trazado, los ensanches de plataforma, las mejoras de firme y, en general, todas aquellas otras actuaciones que no supongan una modificación sustancial en la funcionalidad de la carretera preexistente.

3bis. Se considerarán mejora o desarrollo de las carreteras o redes de infraestructura preexistentes aquellas actuaciones de las señaladas en el artículo 14 que mantengan la funcionalidad del sistema.

4. El cambio de clasificación de una vía comprendida en la Red de Carreteras se hará mediante Orden Foral, una vez recibida definitivamente la obra.

### Artículo 6. Transferencia de titularidad

Las carreteras o tramos de ellas que sean clasificadas dentro de las redes locales podrán ser transferidas a los municipios por donde discurran a través de convenio bilateral o por el procedimiento establecido en el artículo 59.

### Artículo 7. Nomenclatura viaria

La nomenclatura o denominación de las carreteras se efectuará de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/89 de 30 de Mayo reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco y la Ley 2/91, de 8 de Noviembre de modificación de aquella y conforme a lo establecido en el artículo 10 de la Ley 10/82 de 24 de Noviembre Básica de Normalización del Uso del Euskera.

CAPITULO II

## REGIMEN DE LAS CARRETERAS

SECCION 1ª

**PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE CARRETERAS DE BIZKAIA**

### Artículo 8. Objeto

El Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia es un instrumento de planificación sectorial, aprobado por las Juntas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, que establece las disposiciones, objetivos, prioridades y mejoras que deban introducirse en la totalidad de la Red Funcional de Carreteras de Bizkaia, a la vez que recoge las previsiones del Plan General de Carreteras del País Vasco en lo que resulte de aplicación.

### Artículo 9. Documentación: I Planificación, II Desarrollo

El Plan Territorial Sectorial se articulará a través de

a) Lehendik dauden errepideen titulartasuna aldatzen bada, herri administrazio interesdunen arteko adostasunez.

b) Foru Aldundiak errepide berriak eraikitzen baditu lehentasunezko ibilbide baten barruan.

3. Ez da inoiz errepide berritzat hartuko galtzada batetik bi egitea, trazatua egokitzea, plataforma zabaltzea, bidezorua hobetzea eta, oro har, lehendik dagoen errepidearen funtzionaltasunean funtsezko aldaketa ez dakarten jarduera guztiak .

3bis. Foru Arau honetako 14. artikuluan adierazten diren jardueretatik sistemaren funtzionaltasunari eusten diotenak joko dira lehendik dauden errepideen edo azpiegiturasareen hobekuntza edo garapentzat.

4. Errepide-sareko bide baten sailkapen-aldaketa foru agindu bidez egingo da, obra behin betiko jaso ondoren.

### 6. artikulua. Titulartasuna eskualdatzea

Sare lokalaren barruan sailkatutako errepideak edo errepide-tarteak haiek igarotzen diren udalerriei eskualdatu ahal izango zaizkie, alderdi bien arteko hitzarmen bidez edo 59. artikuluan ezarritako prozedura erabilita.

### 7. artikulua. Bideen nomenklatura

Errepideen izenak honako arau hauen arabera jarriko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legea, hura aldatzen duen azaroaren 8ko 2/1991 Legea, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeko 10. artikulua.

II. KAPITULUA

## ERREPIDEEN ARAUBIDEA

1. ATALA

**1. BIZKAIKO LURRALDEKO ERREPIDEEN PLAN SEKTORIALA**

### 8. artikulua. Xedea

Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala arlo jakin bateko plangintza-tresna bat da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek onartua. Haren bidez, Bizkaiko errepideen sare funtzional osoan sartu beharreko xedapen, helburu, lehentasun eta hobekuntzak ezartzen dira, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusiaren aurreikuspenak jasotzen ditu, hura aplikatu beharreko arloetan.

### 9. artikulua. Dokumentazioa: I. tresna, planifikazioa; II. tresna, garapena

Lurralde Plan Sektoriala bi tresnaren bidez antolatuko da:

dos instrumentos, I: Planificación y II: Desarrollo. Asimismo el Catálogo y el Mapa de Carreteras quedarán incorporados al Plan de Carreteras de Bizkaia.

I. tresna, planifikazioa, eta, II. tresna, garapena. Horrez gainera, errepideen katalogoa eta mapa ere jasota geratuko dira Bizkaiko Errepideen Planean.

## Artículo 10. Procedimiento de aprobación

La aprobación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia deberá efectuarse de acuerdo con el siguiente procedimiento, según el instrumento de que se trate:

I. Planificación:

a) Elaboración y aprobación del anteproyecto de planificación por la Diputación Foral de Bizkaia previa realización e inclusión en el expediente correspondiente de los análisis y diagnóstico, los objetivos previstos, la generación, evaluación y selección de alternativas, el estudio de las implicaciones medioambientales y urbanísticas de las mismas, y el establecimiento de características técnicas, así como una representación gráfica E 1:20.000.

b) Información Pública por periodo de un mes, audiencia a las Corporaciones Locales afectadas e informe preceptivo de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco; así como de la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco a los efectos de asegurar la debida coordinación.

c) Aprobación del proyecto de planificación por parte de la Diputación.

d) Aprobación definitiva por las Juntas Generales de Bizkaia, que se publicará en los Boletines Oficiales de Bizkaia y del País Vasco.

II. Planeamiento de Desarrollo:

Elaboración, tramitación y aprobación por la Diputación Foral de los planeamientos que desarrollan las soluciones elegidas en el instrumento de Planificación. Este planeamiento de desarrollo tendrá las características de los Planes Especiales Sectoriales previstos en la legislación sobre el régimen del suelo, y podrá realizarse, de manera global o parcial, por áreas funcionales, comarcas, itinerarios de carreteras, municipios, o por proyectos concretos.

Se considera asimismo Planeamiento de Desarrollo las previsiones recogidas en el planeamiento urbanístico municipal, que se ajusten a las determinaciones incluidas en el instrumento de Planificación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia.

## 10. artikulua. Onartzeko prozedura

Bizkaiko Lurraldeko Plan Sektoriala honako prozedura honen arabera onartuko da, kontuan hartuta zein den tresna:

I.- Planifikazioa:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak planifikazio-aurreproiektua egin eta onartuko du, dagokion espedientean honako hauek egin eta sartu ondoren: analisiak eta diagnostikoa; aurrez ikusitako helburuak; aukeren sorrera, ebaluazioa eta hautaketa; ingurumenaren eta hirigintzaren gaineko eraginen azterketa; ezaugarri teknikoak, eta errepresentazio grafiko bat (E: 1:20.000).

b) Planifikazioaren informazio publikoa hilabetez emango da; entzunaldiaren izapidea egiteko aukera emango zaie ukitutako toki-korporazioei, eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak nahitaezko txostena emango du. Horrez gainera, EAEko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak ere txostena emango du, beharrezko den koordinazioa ziurtatzeko.

c) Aldundiak planifikazio-proiektua onartuko du.

d) Bizkaiko Batzar Nagusiek behin betiko onartuko dute, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

II.- Garapenaren plangintza:

Planifikazio-tresnan aukeratutako soluzioak garatzen dituzten planak egin, izapidetu eta onartuko ditu Foru Aldundiak. Garapenaren plangintza honek lurzoruaren araubideari buruzko legeriak aurrez ikusitako plan sektorial berezien ezaugarriak izango ditu, eta, modu orokorrean edo partzialean egin ahal izango da, alde funtzionalen, eskualdeen, errepide-ibilbideen, udalerrien edo proiektu jakinen arabera .

Horrez gainera, udal hirigintza-plangintzan eginiko aurreikuspenak ere garapenaren plangintzaren barruan sartzen dira, baldin eta Bizkaiko Lurraldeko Plan Sektorialaren planifikazio-tresnan jasotako zehaztapenetara egokitzen badira.

## Artículo 11. Vigencia

El Plan Sectorial de Carreteras de Bizkaia tendrá una vigencia de 12 años, sin perjuicio de su revisión que se efectuará cada 4 años o de su modificación.

## 11. artikulua. Indarraldia

Bizkaiko Errepideen Plan Sektorialak 12 urteko indarraldia izango du; hala ere, 4 urterik behin berrikusiko da, eta, horrez gainera, aldaketak izan ahal izango ditu.

Se entiende por revisión la alteración general de determinaciones o previsiones incluidas en el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia por la adopción de nuevos criterios de ordenación de las vías de comunicación.

Honako hau da berrikuspena: komunikazio-bideak antolatzeko irizpide berriak aintzat hartzeagatik Bizkaiko Lurraldeko Plan Sektorialean jasotako zehaztapen edo aurreikuspenetan egiten den aldaketa orokorra.

### Artículo 12. Procedimiento de revisión y modificación

La revisión o las modificaciones que supongan una alteración sustancial de un trazado, deberán observar el mismo procedimiento establecido para su aprobación.

Las modificaciones ordinarias harán referencia a aspectos puntuales que no incidan sobre los criterios que condujeron a su aprobación, y su aprobación corresponderá a la Diputación Foral.

### 12. artikulua. Berrikusteko eta aldatzeko prozedura

Trazatu baten funtsezko aldaketa dakarten berrikuspenek eta aldaketek haiek onartzeko ezarritako prozedura berari jarraitu behar diote.

Aldaketa arruntek alderdi puntualei egingo diete erreferentzia; alderdi horiek ez dute eraginik izango plana onartzeko irizpideetan. Foru Aldundiari dagokio aldaketok onartzea.

### Artículo 13. Carácter vinculante y coordinación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia

1. La Administración Pública al igual que los particulares, quedarán obligados al cumplimiento de las disposiciones y previsiones contenidas en el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia.

2. El planeamiento urbanístico municipal así como otros instrumentos de planificación de inferior rango que pueden ser elaborados acomodarán necesariamente sus previsiones a lo dispuesto en el planeamiento elaborado en el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia.

Sin perjuicio de lo anterior, las previsiones del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia podrán ejecutarse aunque exista disconformidad con el planeamiento urbanístico en vigor.

La aprobación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia, conllevará la suspensión automática de concesión de licencias para aquellas zonas que se vean afectadas por el mismo.

De igual manera, la aprobación de proyectos de construcción y cualquier otra actuación que cuente con el correspondiente proyecto promovido y aprobado por el Departamento de Obras Públicas, podrá conllevar la denegación de autorizaciones por parte de este Departamento Foral relativas a actuaciones que se pretendan llevar a cabo en cualquiera de las zonas de protección de las carreteras forales que se vean afectadas por los mismos.

En estos supuestos, no podrán concederse por parte de ninguna Administración Pública autorizaciones para usos que sean incompatibles con las citadas determinaciones. Únicamente, podrán autorizarse obras de higiene, conservación y ornato, así como urgentes obras parciales y circunstancias de consolidación, sobre las edificaciones existentes en dichas zonas, cuando en ambos casos, no esté prevista su expropiación o demolición y el proyecto promovido y aprobado por el Departamento de Obras Públicas posea un alto grado de definición.

3. El Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia,

### 13. artikulua. Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialaren izaera loteslea eta koordinazioa

1. Herri Administrazioa zein partikularrak behartuta daude Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialean jasotako xedapen eta aurreikuspenak betetzera.

2. Udal hirigintza-plangintzak eta beheragoko maila duten plangintza-tresnak, halakorik sortuz gero, ezinbestez egokitu behar dira Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialean egindako plangintzan xedatutakora.

Aurrekoa gora-behera, Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialeko aurreikuspenak betearazi ahal izango dira, indarreko hirigintza-plangintzarekin bat ez badatoz ere.

Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala onartzeak honako hau ekarriko du: planak ukitutako inguruetarako lizentziak ematea automatikoki bertan behera geratzea.

Horrez gainera, Herri Lan Sailak sustatu eta onartutako proiektua duten eraikuntza-proiektuak eta beste edozein jarduera onartzean, Herri Lan Sailak ukatu egin ahal izango ditu proiektuok ukitutako foru errepideetako edozein babes-eremutan egin nahi diren jarduerei dagozkien baimenak.

Kasu horietan, ezein administraziok ezin izango du baimenik eman zehaztapen horiekin bateraezinak diren erabileretarako. Izan ere, baimena bakar-bakarrik eman ahal izango da gune horietan dauden eraikinetan higiene-, kontserbazio- eta apaintze-lanak egiteko edo premiazko lan partzialak eta eraikinok finkatzeko lanak egiteko, betiere, kasu bietan, eraikina desjabetzea edo eraistea aurrez ikusita ez badago eta Herri Lan Sailak sustatu eta onartutako proiektuak definizio maila handia badu.

3. Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala eta

así como los distintos Planes de otras entidades públicas del Territorio Histórico que establezcan previsiones en materia de carreteras, deberán coordinarse entre sí en cuanto se refiera a sus mutuas incidencias, para garantizar la unidad y continuidad del sistema de comunicaciones y armonizar los intereses públicos afectados, utilizando al efecto los procedimientos legalmente establecidos.

SECCION 2ª
**PROYECCION**

## Artículo 14. Grupos de obras

Las obras se clasifican en los siguientes grupos:

a) Nuevas infraestructuras de mejora y descongestión del itinerario existente

Se trata de carreteras de nuevo trazado que representan un nuevo itinerario, al objeto de solucionar los problemas de congestión y de saturación de tráfico de los trayectos más solicitados.

Estas nuevas infraestructuras no tienen una carretera antigua de referencia; obedecen a criterios de mallado y gestión de red al objeto de favorecer criterios de redundancia en la accesibilidad de zonas sensibles (Área Metropolitana, grandes terminales de transporte, arterias que trabajan al límite de su capacidad, etc.).

b) Aumento de capacidad en la red de Alta Capacidad

Referida exclusivamente, para carreteras de doble calzada, con una alta demanda de tráfico, que rebasen los umbrales de nivel de servicio permitidos, en los que como solución se procederá a aumentar la capacidad viaria mediante la implantación de 1 ó 2 carriles adicionales por sentido, ya sea constituyendo idéntica calzada o mediante la consecución de vías de Servicio.

Así como la remodelación de los enlaces derivados de dicha actuación, sobre los itinerarios de alta capacidad o sobre las vías secundarias sobre las que se sirve.

c) Duplicación de la calzada

Esta actuación permite generar una infraestructura de doble calzada, sensiblemente paralela a una carretera convencional existente de capacidad reducida, de manera que se trasvasen los flujos de una a otra vía, quedando la antigua como vía de servicio y/o complementaria.

Los tramos susceptibles de una actuación de este tipo resolverán la mala oferta viaria existente en carreteras convencionales y/o con desarrollo urbano en sus márgenes, que rebasen los umbrales de nivel de servicio y de demanda de

lurralde historikoko beste erakunde publikoek sortutako planak koordinatuta egon behar dira beren artean, planen arteko eraginei dagokienez; hala, komunikazio-sistemaren batasuna eta jarraipena bermatu ahal izango dira eta ukitutako interes publikoak harmonizatu, legeak ezarritako prozedurak erabilita.

2. ATALA
**PROIEKZIOA**

## 14. artikulua. Lan multzoak

Honako multzo hauen arabera sailkatzen dira lanak:

a) Lehendik dauden ibilbideak hobetu eta arintzeko azpiegitura berriak

Trazatu berriko errepideak dira; ibilbide berri bat osatzen dute, gehien erabiltzen diren tarteetan trafikoaren pilaketak eta saturazioak eragindako arazoak konpontzeko.

Azpiegitura berri hauek ez dute erreferentziako aurreko errepiderik; sarearen errepide-ehunari eta kudeaketari lotutako irizpideengatik sortzen dira, arazo berezia dagoen eremuetara (metropoli-eremua, garraio-terminal handiak, gainezka eginda dauden arteriak, eta abar) sartzeko aukera-aniztasuna ahalbidetzeko.

b) Ahalmena handitzea ahalmen handiko sarean

Honako errepide hauen kasuan soilik: bi galtzadako errepideak, trafiko-eskaera handia dutenak eta baimendutako zerbitzu mailaren mugak gainditzen dituztenak. Haietan, soluzio gisa bidearen ahalmena handituko da, noranzko bakoitzeko beste errei bat edo bi jarriz, dela galtzada bera osatuz dela zerbitzu-bideak eginez.

Horrez gainera, jarduera horren ondoriozko lotuneak birmoldatzeko lanak ere sartzen dira atal honetan, baldin eta ahalmen handiko ibilbideetan edo jarduerak baliatzen dituen bigarren mailako errepideetan egiten badira.

c) Galtzada bikoiztea

Jarduera mota honek aukera ematen du galtzada bikoitzeko azpiegitura bat sortzeko; azpiegitura hori lehendik dagoen ahalmen txikiko errepide arruntarekiko nahiko paralelo joango da, bide batetik bestera fluxuak aldatu ahal izateko. Ondorioz, aurreko bidea zerbitzu-bide gisa eta/edo bide osagarri gisa geratuko da.

Honelako jarduera bat egin daitekeen tarteetan galtzada bikoiztuz gero, bide-arazoa konponduko da errepide arruntetan eta/edo beren ertzetan hiri-garapena duten errepideetan, non zerbitzu-mailaren eta trafiko-eskaeraren mugak

tráfico.

d) Desdoblamiento de calzada

Esta actuación permitirá aumentar la capacidad de una carretera preexistente a base de pasar de una carretera convencional a una de calzada separadas, aprovechando la calzada existente.

Esta actuación se podrá llevar a cabo en aquellos tramos, con poca accesibilidad al suelo, que cuenten con importantes problemas de capacidad al soportar altas cargas de tráfico, identificados igualmente por sus buenas condiciones de trazado.

e) Variante de población

En aquellos itinerarios que responden a una duplicación cuyo trazado haya quedado absorbido por el desarrollo urbano, o que en el momento de su implantación no se tuvo en consideración con la especial atención requerida los impactos medioambientales y urbanísticos, se podrán considerar como variante aquellas modificaciones de trazado en planta, o el soterramiento de la solución existente, manteniendo en todo caso las características funcionales para los flujos de circulación (Variante tipo A).

En aquellos itinerarios donde de manera global no se hubiera planteado una duplicación de calzada o una nueva vía alternativa, se denomina variante de población aquel nuevo trazado que evite la interferencia tráfico trama urbana (variante tipo B).

f) Rectificación de trazado y ensanche

Para una carretera convencional dada, esta actuación permitirá mejorar sus estándares (planta, alzado, sección transversal) pudiendo aprovecharse de manera parcial la plataforma existente.

Las carreteras convencionales que cuenten con unas características de trazado deficientes podrán acondicionarse mediante la rectificación de curvas existente o por la construcción de nuevos tramos que mejoren la geometría general de la carretera antigua.

Los tramos viarios abandonados de la antigua carretera dejarán de tener funcionalidad viaria dentro de la Red de Carreteras Foral.

g) Acondicionamiento y ensanche

Se definen tres tipos de obra fundamentales dentro de este tipo de actuación:

gainditzen diren.

d) Galtzada batetik bi egitea

Jarduera honek aukera emango du lehendik dagoen errepidearen ahalmena handitzeko; horretarako, errepide arrunta bi gatzada bereiziko errepide bihurtzen da, lehengo galtzada aprobetxatuz.

Jarduera hau lurzorua eskuratzeko aukera txikia eta trazatuaren egoera ona duten errepide-tarteetan egin ahal izango da, non trafiko handia jasateko ahalmen-arazoa dagoen.

e) Herriko saihesbidea

Ibilbideren bat bikoiztu ondoren, haren trazatua hiri-garapenaren barruan geratu bada edo, ibilbidea ezarri zenean, ingurumenaren eta hirigintzaren gaineko eraginak behar bezala kontuan hartu ez baziren, saihesbidetzat hartu ahal izango dira oinplanoko trazatuaren aldaketak edo dagoen soluzioa lurperatzea, betiere zirkulazio-fluxuetarako ezaugarri funtzionalei eutsita (A motako saihesbidea).

Baldin eta ibilbide batean galtzada bikoiztea edo beste bide alternatibo bat ez bada modu orokorrean planteatzen, herriko saihesbide deituko zaio hiri-ehunean trafiko-interferentzia ekiditen duen trazatu berriari (B motako saihesbidea).

f) Trazatua zuzentzea eta zabaltzea

Errepide arrunt batean, jarduera honi esker estandarrak hobetuko dira (oinplanoa, altxaera, zeharkako sekzioa), eta aukera egongo da dagoen plataformaren zati bat aprobetxatzeko.

Trazatu txarrak dituzten errepide arruntak bi modutan egokitu ahal izango dira: dauden bihurguneak zuzenduz edo lehengo errepidearen geometria orokorra hobetzen duten tarte berriak eraikiz.

Aurreko errepidean baztertutako bide-tarteek funtzionaltasuna galduko dute foru errepidesarearen barruan.

g) Errepidea egokitzea eta zabaltzea

Horrelako jardueren barruan, hiru lan mota nagusi bereizten dira:

- Aumento de la sección transversal de la carretera.

- Mejora del trazado en planta de la carretera, sin abandonar de manera completa la plataforma viaria preexistente.

- Rectificación del perfil longitudinal cumpliendo los dos supuestos anteriores.

Dentro de un acondicionamiento y ensanche se podrán incluir, sin que por ello deje de considerarse, este tipo de actuación, como acondicionamiento de aquellas rectificaciones de trazado (según definición anterior) que supongan un abandono total de la plataforma existente, en una longitud inferior a los 250 metros, y la longitud total de todos los tramos rectificados sea inferior al 15% de la longitud resultante de la actuación.

Este tipo de actuación podrá llevarse a cabo en aquellos tramos caracterizados por tener una mala sección transversal limitada en la mayoría de los casos por la no existencia de arcenes.

h) Vías lentas

Esta actuación permitirá eliminar la influencia del tráfico de pesados en carreteras convencionales aumentando su capacidad y facilitando una mayor comodidad de la conducción.

i) Ordenación de accesos

Para las carreteras que no admiten desdoblamiento ni variantes debido a las restricciones impuestas por el entorno urbano, y fundamentalmente para aquellas que constituyen una alternativa a autopistas de peaje, se podrá proceder a ordenar los accesos existentes directos sobre la calzada y compatibilizar los futuros, derivados del crecimiento urbanístico previsible.

La tipificación de las actuaciones se producirá para cada "Supertramo" de la Red de Carreteras (unidad básica de tramificación de la red) según Inventario de Carreteras. Se podrán programar actuaciones en longitudes inferiores a supertramo pero la tipificación de la actuación vendrá determinada por la de todo el supertramo.

Toda la actuación de los grupos a, b, c, d, e y f se desarrollará mediante proyecto de construcción para cuya aprobación se seguirán los siguientes procedimientos:

a) Si estuviera contenido en el Planeamiento de Desarrollo, se aprobará directamente.

b) Si no estuviera contenido en el Planeamiento de

- Errepidearen zeharkako sekzioa handitzea.

- Errepidearen oinplanoko trazatua hobetzea, lehendik dagoen bide-plataforma erabat baztertu gabe.

- Luzetarako profila zuzentzea, aurreko kasu biak beteta.

Errepidea egokitzeko eta zabaltzeko lanen barruan trazatua zuzentzeko (aurreko definizioaren arabera) zenbait lan ere sartuko dira, eta, edozelan ere, errepidea egokitzeko jardueratzat hartuko dira. Hain zuzen ere, trazatua zuzentzeko lan hauek sartuko dira: lehendik dagoen plataforma erabat baztertzea dakartenak 250 metrotik beherako luzera batean, baldin eta zuzendutako tarteen luzera guztira jardueraren ondoriozko luzeraren % 15etik beherakoa bada.

Jarduera mota hau zeharkako sekzio txarra duten tarteetan egin ahal izango da; gainera, kasu gehienetan, tarte horien beste ezaugarri bat bazterbiderik ez izatea izaten da.

h) Bide geldiak

Jarduera honi esker, ibilgailu astunen zirkulazioak errepide arruntetan izaten duen eragina saihestu ahal izango da; bideen ahalmena handituko da eta erosoago gidatu ahal izango da.

i) Sarbideak antolatzea

Hiri-inguruak ezarritako murrizpenak direlaeta galtzada batetik bi galtzada egitea eta saihesbideak egitea onartzen ez duten errepideetarako eta, nagusiki, ordainpeko autobidearen alternatiba diren errepideetarako, galtzadan lehendik dauden zuzeneko sarbideak antolatu ahal izango dira, eta aurrez ikusten den hirigintza-hazkundearen arabera gerora sortuko diren sarbideekin bateragarri egin.

Jardueren tipifikazioa errepide-sarearen “erreferentzia-tarte” bakoitzarentzat egingo da (tarteak egiteko oinarrizko unitatea), errepideen inbentarioaren arabera. Erreferentzia-tarteak baino laburragoak diren tarteetarako ere programatu ahal izango dira jarduerak; hala ere, jardueraren tipifikazioa erreferentzia-tarte osoarena izango da.

Eraikuntza-proiektu bat behar da a, b, c, d, e eta f multzoetako edozein jarduera egiteko; proiektu hori onartzeko, hain zuzen ere, honako prozedura hauek egin beharko dira:

a) Proiektua garapenaren plangintzan jasota badago, zuzenean onartuko da.

b) Proiektua garapenaren plangintzan jasota ez ba-

Desarrollo, o supusiera modificaciones sobre el mismo, se realizará una Información Pública y Audiencia a las Corporaciones Locales afectadas.

Las actuaciones de los grupos g, h, i y en general, aquellas actuaciones que no supongan una modificación sustancial en la funcionalidad de la carretera se aprobarán directamente.

## Artículo 15. Tramitación de los Proyectos de carreteras forales

1. Los Proyectos de carreteras forales, que no puedan aprobarse directamente, deberán someterse, antes de su aprobación definitiva, a información pública por plazo de 30 días hábiles mediante anuncio publicado al efecto en el Boletín Oficial de Bizkaia, iniciándose el cómputo del plazo el primer día hábil siguiente a su publicación en el referido Boletín. Las observaciones en este trámite deberán versar sobre las circunstancias que justifiquen la declaración de interés general de la carretera y sobre la concepción global de su trazado.

2. Este mismo trámite servirá también, en su caso, para la información pública del estudio de impacto ambiental, en cumplimiento y a los efectos, de la legislación aplicable.

3. Del Proyecto sometido a información pública se dará audiencia a los demás Departamentos, Organismos Públicos y Ayuntamientos que pudieran resultar afectados en sus respectivas competencias para que informen sobre su conformidad o disconformidad con el Proyecto y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.

4. El plazo para emitir informe por parte de los Ayuntamientos afectados es el de 2 meses. Transcurrido el mismo sin haberse emitido informe por parte del Ayuntamiento o de los Ayuntamientos afectados, se entenderá que se está conforme con la propuesta formulada.

5. La resolución de los trámites de información pública y audiencia, así como la aprobación de los Proyectos de carreteras forales, corresponden al Órgano competente de la Diputación Foral a propuesta del Departamento de Obras Públicas.

En el supuesto de que durante el plazo para emitir informe el o los Ayuntamiento/s afectado/s hayan mostrado su disconformidad con el Proyecto, la resolución de las alegaciones deberá realizarse de manera motivada.

6. La resolución de los trámites de información pública y de audiencia, así como la aprobación definitiva de los proyectos serán notificados a los que hayan presentado alegaciones en el procedimiento de aprobación del proyecto de carretera foral, así como al o a los Ayuntamiento/s afectado/s.

## Artículo 16. Evaluación de impacto ambiental

Los proyectos de Infraestructura viaria serán sometidos a evaluación de impacto ambiental según la Legislación

dago edo plangintza hori aldatzea badakar, informazio publikoaren izapidea eta ukitutako toki-korporazioaren entzunaldiaren izapidea egingo dira.

Horrez gainera, g, h eta i multzoetako jarduerak eta, oro har, errepidearen funtzionaltasunean funtseko aldaketarik ez dakarten jarduerak zuzenean onartuko dira.

## 15. artikulua. Foru errepideen proiektuak tramitatzea

1. Foru errepideen proiektuak ezin badira zuzenean onartu, proiektuok behin betiko onartu aurretik informazio publikoan jarri behar dira 30 egun balioduneko epean. Horretarako, berariazko iragarki bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da zenbatzen epe hori. Izapide horretan egiten diren oharrak izan behar dira bai errepidea interes orokorrekotzat hartzea justifikatzen duten inguruabarrei buruzkoak, bai eta trazatuaren kontzepzio orokorrari buruzkoak ere.

2. Era berean, izapide honek balio du, hala behar denean, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa informazio publikoan jartzeko, aplikatu beharreko legeria betetzeko eta dagozkion ondorioetarako.

3. Informazio publikoaren pean jartzen den proiektua dela-eta, entzunaldiaren izapiderako aukera emango zaie beren eskumenetan ukituta dauden gainerako sail, erakunde publiko eta udalei, proiektuarekin bat datozen ala ez jakinaraz dezaten eta egokitzat jotzen dituzten alegazio eta iradokizunak egin ditzaten.

4. Ukitutako udalek 2 hilabeteko epea izango dute txostena emateko. Epea igaro eta ukitutako udalak edo udalek txostena eman ez badute, egin zaien proposamenarekin bat datozela ulertuko da.

5. Herri Lan Sailaren proposamena eginda, Foru Aldundian gai honetan eskumena duen organoari dagokio informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapideak ebaztea eta foru errepideen proiektuak onartzea.

Ukitutako udalak edo udalek txostena emateko epearen barruan adierazi badute ez datozela bat proiektuarekin, alegazioen ebazpena arrazoitua izango da.

6. Foru errepidearen proiektua onartzeko prozeduran alegazioak aurkeztu dituztenei eta ukitutako udalei jakinaraziko zaizkie informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapideen ebazpena eta proiektuen behin betiko onarpena.

## 16. artikulua. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa

Bide-azpiegiturei buruzko proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren pean jarriko dira, ar-

vigente sobre la materia y en los términos de las disposiciones de desarrollo de la presente Norma Foral.

## Artículo 17. Áreas de Servicio

1. Los proyectos de carreteras referidos a autopistas, autovías, vías para automóviles y en aquellos tramos de las carreteras convencionales que dispongan de carril adicional para vehículos lentos, independientemente del sentido considerado, podrán regular la localización y características de las Áreas de Servicio necesarias para la comodidad del usuario y el buen funcionamiento de la circulación delimitando el suelo destinado a las Áreas de Servicio con previsión de los puntos de desvío e incorporación a las calzadas. El suelo necesario para su instalación se adquirirá, si fuera preciso, mediante el expediente expropiatorio común a toda vía.

2. Cuando en autopistas, autovías, vías para automóviles y en aquellos tramos de las carreteras convencionales que dispongan de carril adicional para vehículos lentos, independientemente del sentido considerado, existentes o en construcción, incluyendo sus ramales de enlace, se considere conveniente el establecimiento de un Área de Servicio no prevista en el proyecto, la Diputación Foral realizará el estudio correspondiente mediante el cual se determinarán con exactitud los terrenos necesarios para dicha Área. En base a dicho estudio se iniciará el correspondiente expediente expropiatorio.

3. En las carreteras convencionales dichas áreas no serán objeto de delimitación a través de los planes y proyectos. Su localización, instalación y características funcionales quedará sujeta a la autorización del Departamento de Obras Públicas, que decidirá con arreglo a la normativa que se apruebe por Decreto Foral de la Diputación Foral, debiendo quedar garantizada la seguridad y capacidad de la vía, así como la comodidad de los usuarios y la protección del paisaje.

4. No podrán instalarse áreas de servicio en las variantes o carreteras de circunvalación. La prohibición se extenderá al kilómetro inmediatamente anterior y posterior a las mismas. No será aplicable la anterior prohibición cuando la carretera o variante disponga de vías de servicio y se acredite el cumplimiento de las debidas condiciones de seguridad y la no disminución de la capacidad de la vía principal.

5. Las áreas de servicio a las que se refieren los párrafos 1 y 2 de este artículo podrán ser explotadas por cualquiera de los sistemas de gestión de servicios públicos que establece la normativa vigente.

6. Las bases que, según lo dispuesto en el párrafo 5 de este artículo, se convoquen para la construcción y explotación de las Áreas de Servicio se establecerán con arreglo a la normativa que se apruebe por Decreto Foral de la Diputación Foral.

7. La explotación por terceros de las áreas de servicio, llevará aparejada la obligación de satisfacer a la Diputación Foral un canon, cuya cuantía mínima se establecerá con arreglo a la normativa que se apruebe por Decreto

loan indarrean dagoen legeriaren arabera eta foru arau hau garatzen duten xedapenetan ezarritakoari jarraiki.

## 17. artikulua. Zerbitzuguneak

1. Autobide, autobia eta automobil-bideei buruzko proiektuetan eta ibilgailu geldientzako errei gehigarria duten errepide arrunten tarteei buruzkoetan, noranzkoa edozein dela ere, erabiltzaileen erosotasunerako eta zirkulazio onerako beharrezko diren zerbitzuguneen kokapena eta ezaugarriak arautu ahal izango dira: zerbitzuguneotarako lurzorua zehaztuko dira eta galtzadako desbideratzeak eta sarbideak zein gunetan jarriko diren aurrez ikusiko dira. Zerbitzuguneak instalatzeko behar den lurzorua, beharrezko bada, bide mota guztietarako erabiltzen den desjabetze-espedientearen bidez eskuratuko da.

2. Lehendik dauden edo eraikitzen ari diren autobideetan, autobietan, automobil-bideetan eta ibilgailu geldientzako errei gehigarria duten tarteetan (lotura-adarrak barne), noranzkoa edozein dela ere, uste bada komeni dela proiektuan aurrez ikusita ez dagoen zerbitzugune bat jartzea, dagokion azterlana egingo du Foru Aldundiak, zerbitzugunerako behar diren lurrak zehazteko. Azterlan horren arabera irekiko da desjabetze-espedientea.

3. Errepide arruntetan, zerbitzuguneak zehazteko ez da beharrezkoa izango planak eta proiektuak egitea. Herri Lan Sailaren baimenean ezarriko dira zerbitzuguneon kokalekua, instalazioa eta ezaugarri funtzionalak. Sailak Foru Aldundiaren foru dekretu bidez onartutako araudiaren arabera erabakiko du; betiere, bermatuta geratu behar dira bidearen segurtasuna eta ahalmena, bai eta erabiltzaileen erosotasuna eta paisaiaren babesa ere.

4. Saihesbideetan eta ingurabideetan ezin izango da zerbitzugunerik instalatu. Debekua errepideon aurreko kilometrora eta osteko kilometrora zabalduko da. Aurreko debekua ez da aplikatuko errepideak edo saihesbideak zerbitzu-bideak dituenean eta ziurtatzen denean segurtasun-baldintzak betetzen direla eta bide nagusiaren ahalmena ez dela murrizten.

5. Zerbitzu publikoak kudeatzeko indarreko araudian ezarritako edozein sistemaren bidez ustiatu ahal izango dira artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako zerbitzuguneak.

6. Artikulu honetako 5. paragrafoaren arabera zerbitzuguneak eraiki eta ustiatzeko deialdietan ezartzen diren oinarriak Foru Aldundiaren foru dekretu bidez onartutako araudiari jarraiki ezarriko dira.

7. Zerbitzuguneak hirugarrenen bidez ustiatuz gero, kanon bat ordaindu beharko zaio Foru Aldundiari; Foru Aldundiaren foru dekretu bidez onartutako araudiaren arabera ezarriko da kanon horren gutxieneko zenbatekoa.

Foral de la Diputación Foral.

8. El planeamiento urbanístico así como las Ordenanzas municipales que se dicten en materia de carreteras deberán adecuarse necesariamente a la delimitación de las Áreas de Servicio que sea aprobada por la Diputación Foral, calificando el suelo necesario para su instalación como sistema general de comunicaciones.

8. Bai hirigintza-plangintza, bai errepideen arloan ematen diren udal ordenantzak ezinbestez egokitu behar dira Foru Aldundiak zerbitzuguneetarako onartzen dituen zehaztapenetara, eta zerbitzuguneak instalatzeko lurzorua komunikabide sistema orokorraren barruan kalifikatu behar da.

## Artículo 18. Declaración de utilidad pública

Conllevará la declaración de utilidad pública de las obras a los fines de expropiación forzosa la aprobación de cualquiera de los siguientes instrumentos: el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia; los anteproyectos, proyectos de trazado y construcción de carreteras; las delimitaciones y proyectos de áreas de servicio; los proyectos de instalaciones auxiliares; los proyectos de aparcamientos; los proyectos de acceso a superficies residenciales, comerciales o industriales y los intercambiadores modales, promovidos por la Diputación Foral de Bizkaia.

## 18. artikulua. Onura publikoko adierazpena

Honako tresna hauek onartzeak ekarriko du obrak onura publikoko adierazpena egitea, nahitaezko desjabetzea egiteko: Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala; errepideen aurreproiektuak, trazatuaren proiektuak eta eraikuntza-proiektuak; zerbitzuguneen zehaztapenak eta proiektuak; instalazio laguntzaileen proiektuak; aparkalekuen proiektuak; bizitegi-, merkataritza- eta industria-azaletara sartzeko proiektuak eta garraio-aldaguneen proiektuak (betiere Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen baditu).

## Artículo 19. Expropiación forzosa

1. La adquisición de bienes y derechos y la imposición de servidumbres necesarias para la construcción de las carreteras forales se efectuará con arreglo a lo establecido en la legislación sobre expropiación forzosa y el resto de la normativa vigente aplicable.

2. En los supuestos a que se refiere el apartado anterior, la Administración expropiante se subrogará en la posición jurídica del propietario expropiado a efectos de su derecho al aprovechamiento urbanístico correspondiente a los terrenos según la ordenación en vigor.

3. Asimismo se admite la fórmula del convenio con los particulares para la adquisición de suelo afectado por las carreteras, en las modalidades de cesión gratuita, permuta, compraventa y reserva de aprovechamiento.

4. De conformidad con lo dispuesto en la normativa urbanística el suelo destinado a la ejecución de nuevas infraestructuras de mejora y descongestión del itinerario existente se adscribirá a las actuaciones integradas o figuras análogas existentes en el suelo urbanizable sectorizado o suelo urbano inmediatamente colindante con las mismas, de tal manera que podrá ser obtenido gratuitamente por la Diputación Foral de Bizkaia con cargo a los ámbitos en que se adscriban o en los que se incluyan a tal efecto.

Las revisiones del planeamiento municipal deberán contemplar la ejecución de estas nuevas infraestructuras de mejora y descongestión del itinerario existente adscribiendo las mismas al ámbito correspondiente, calificándolas como sistema general.

## 19. artikulua. Nahitaezko desjabetzea

1. Foru errepideak eraikitzeko hartu behar diren ondasun-eskubideak eskuratzeko eta zortasunak ezartzeko, nahitaezko desjabetzeari buruzko legerian eta arloan aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoa beteko da.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako kasuetan, administrazio desjabetzailea desjabetutakoaren egoera juridikoan subrogatuko da, indarreko ordenamenduaren arabera lurrei dagokien hirigintza-aprobetxamendurako duen eskubidea erabiltzeko.

3. Horrez gainera, hitzarmenak egin ahal izango dira partikularrekin, errepideek ukitutako lurzorua eskuratzeko, doako lagapenaren, trukaketaren, salerosketaren eta aprobetxamendu-erreserbaren bidez.

4. Hirigintzako araudian xedatutakoaren arabera, ibilbide bat hobetu eta arintzeko azpiegitura berriak egiteko den lurzorua lurzoru urbanizagarri sektorizatuan edo azpiegituren hiri-lurzoru mugakidean dauden jarduera integratuei edo antzeko jarduerei atxikiko zaie; hala, Bizkaiko Foru Aldundiak doan eskuratu ahal izango du, lurzoru hori atxiki edo sartzen den arloen kontura.

Udal plangintzaren aurreikuspenetan jasota geratu behar da ibilbidea hobetu eta arintzeko azpiegitura berri horiek egitea; horretarako, dagokien arloei atxikiko zaizkie, eta sistema orokor gisa kalifikatuko dira.

## Artículo 20. Autonomía de gestión

Las obras de carreteras de Bizkaia, por constituir obras públicas de interés general, así como las actuaciones que afecten a sus elementos funcionales, no están sometidas a los actos de control preventivo municipal a que se refiere el artículo 84.1.b) de la ley 7/1985, de 2 de Abril, regu-

## 20. artikulua. Kudeatzeko autonomia

Bizkaiko errepideen lanak eta haien funtsezko elementuetan eragina duten jarduerak interes orokorreko lan publikoak dira; beraz, ez daude apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 84.1.b) artikuluan ezarritako udal prebentzio-kontrolerako egintzen menpe (lege horren bidez, toki-araubidearen

ladora de las Bases de Régimen Local, ni a ningún tipo de autorización o licencia previa, de acuerdo con la legislación sobre Ordenación del Territorio del País Vasco.

## Artículo 21. Dirección y control

La dirección, control, vigilancia y, en su caso, inspección de los trabajos y obras de construcción de las carreteras de la red foral, y su señalización podrán encomendarse a terceros, siendo supervisadas en todo caso por los Servicios del Departamento de Obras Públicas.

En este caso los citados Servicios vigilarán el cumplimiento de las disposiciones vigentes y de las cláusulas administrativas y prescripciones técnicas del contrato, siendo dichos terceros los responsables de los errores y omisiones cometidos.

SECCION 3ª
**FINANCIACION**

## Artículo 22. Sistemas de financiación

1. La financiación de las actuaciones en la Red de Carreteras de Bizkaia se efectuará mediante las consignaciones que se incluyan en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico, los recursos que provengan de otras Administraciones Públicas, de Organismos nacionales e internacionales y, en los términos previstos en esta Norma Foral, de los particulares.

2. Igualmente, la financiación podrá producirse mediante contribuciones especiales en la forma y con los requisitos contenidos en el artículo siguiente.

3. Las carreteras de Bizkaia que vayan a explotarse en régimen de gestión indirecta se financiarán mediante los recursos propios de los concesionarios, los ajenos que éstos movilicen y las subvenciones que pudieran otorgarse.

4. La explotación de una carretera mediante el establecimiento del pago de peaje se realizará conforme a lo dispuesto en la normativa aplicable en la materia.

## Artículo 23. Contribuciones especiales

1. Podrán imponerse contribuciones especiales cuando de la ejecución de las obras que se realicen para la construcción de carreteras, accesos y vías de servicio, resulte la obtención por personas físicas o jurídicas de un beneficio especial, aunque éste no pueda fijarse en una cantidad concreta. El aumento de valor de determinadas fincas como consecuencia de la ejecución de las obras tendrá, a estos efectos, la consideración de beneficio especial.

2. Serán sujetos pasivos de estas contribuciones especiales quienes se beneficien de modo especial de las carreteras, accesos y vías de servicio. Se consideran personas especialmente beneficiadas los titulares de las fincas y establecimientos colindantes y los de las urbanizaciones cuya comunicación resulte mejorada.

3. La base imponible se determinará por el siguiente

oinarriak arautzen dira), ez eta, EAEko lurraldeantolamenduari buruzko legeriaren arabera, aurretiazko ezein baimen edo lizentziaren menpe ere.

## 21. artikulua. Zuzendaritza eta kontrola

Hirugarrenen esku utzi ahal izango dira foru sareko errepideen zuzendaritza, kontrola, zaintza eta, hala behar denean, eraikuntza-lanen ikuskaritza eta seinaleztapena; hala ere, Herri Lan Saileko zerbitzuek ikuskatuko dituzte lanok, beti.

Kasu horretan, zerbitzu horiek begiratuko dute ea indarreko xedapenak eta kontratuaren administrazio-klausulak zein preskripzio teknikoak betetzen diren, eta hirugarren horiek izango dira egindako oker eta ezegiteen erantzule.

3. ATALA
**FINANTZIAZIOA**

## 22. artikulua. Finantziazio-sistemak

1. Bizkaiko errepideen sareko jarduerak honako hauen bidez finantzatuko dira: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan egindako diru-izendapenen bidez eta beste herri administrazio batzuek, nazioko zein nazioarteko erakundeek eta, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, partikularrek jarritako baliabideen bidez.

2. Horrez gainera, baliteke finantziazioa kontribuzio berezien bitartez ere egitea, hurrengo artikuluan ezarritako moduaren eta baldintzen arabera.

3. Zeharkako kudeaketa bidezko araubidearen arabera ustiatu nahi diren Bizkaiko errepideak emakidadunen baliabide propioen bidez, emakidadunek besterengandik eskuratutako baliabideen bidez eta lortutako dirulaguntzen bidez finantzatuko dira.

4. Bidesaria ezartzen bada errepide bat ustiatzeko, arloan aplikatzekoa den araudian xedatutakoa bete beharko da.

## 23. artikulua. Kontribuzio bereziak

1. Kasu honetan ezarri ahal izango dira kontribuzio bereziak: errepideak, sarbideak eta zerbitzu-bideak eraikitzeko lanak egitean pertsona fisikoek edo juridikoek onura berezi bat lortzen dutenean, onura hori zenbateko batean finkatu ezin bada ere. Lanak egitearen ondorioz finka jakin batzuen balioa areagotzea onura berezitzat joko da, kontribuzio berezia ezartzeko.

2. Errepide, sarbide eta zerbitzu-bideetatik onura berezia ateratzen dutenak izango dira kontribuzio berezien subjektu pasibo. Honako hauek dira onura berezia ateratzen duten pertsonatzat hartzen direnak: finken eta establezimendu mugakideen titularrak, eta komunikazioa hobetzen zaien urbanizazioen titularrak.

3. Zerga-oinarria lanen kostu osoaren honako portzentaje

porcentaje del coste total de las obras, incluido el justiprecio de las expropiaciones, excepto, en cuanto al sujeto pasivo que sea titular del bien expropiado, la parte correspondiente del justiprecio:

- Con carácter general, hasta el 25 por 100.
- En las vías de servicio, hasta el 50 por 100.
- En los accesos de uso particular para fincas, urbanizaciones o establecimientos determinados, hasta el 90 por 100.

4. El importe total de las contribuciones especiales se repartirá entre los sujetos pasivos atendiendo a criterios objetivos que, según la naturaleza de las obras, construcciones y circunstancias que concurran en aquéllos, se determinen de entre los que figuran a continuación:

a) Superficie de las fincas beneficiadas.

b) Situación, proximidad y accesos de las fincas a la carretera, construcciones, instalaciones, explotaciones o urbanizaciones.

c) Bases imponibles del impuesto sobre bienes e inmuebles de las fincas beneficiadas.

d) Los que determine el Decreto Foral que establezca la contribución especial en atención a las circunstancias particulares que concurran en la obra.

5. El establecimiento de contribuciones especiales en los supuestos a que se refiere la presente Norma Foral se hará por acuerdo de la Diputación Foral a propuesta de los Departamentos de Hacienda y de Obras Públicas.

SECCION 4ª
**EXPLOTACION**

## Artículo 24. Objeto

1. La explotación de la carretera comprenderá las operaciones de conservación y mantenimiento, las actuaciones encaminadas a la defensa de la vía y a su mejor uso, incluyendo las referentes a señalización, ordenación de accesos y uso de las zonas de dominio público, de servidumbre y de afección.

2. Las carreteras pueden ser explotadas por cualquiera de los sistemas de gestión directa o indirecta de los servicios públicos que establece la normativa vigente.

3. La conservación y explotación de todo tramo de carretera foral que discurra por suelo urbano corresponde al Departamento de Obras Públicas.

## Artículo 25. Concesiones administrativas

1.Las Carreteras Forales en régimen de concesión administrativa se regirán por lo dispuesto en la legislación específica.

2. De acuerdo con dicha legislación específica y lo dispuesto en la presente Norma Foral, la Diputación Foral podrá imponer al concesionario, tanto en fase de cons-

hauen arabera zehaztuko da, kostu horretan desjabetzeen balio zuzena barne dela, salbu eta desjabetutako ondasunaren subjektu pasiboaren kasuan, balio zuzenari dagokion zatia ez baitago sartuta:

- Oro har, 100eko 25 gehienez.
- Zerbitzu-bideetan, 100eko 50 gehienez.
- Finketara, urbanizazioetara edo establezimendu mota jakin batzuetara sartzeko erabilera partikularreko bideetan, 100eko 90 gehienez.

4. Kontribuzio berezien zenbateko osoa subjektu pasiboen artean banatuko da, irizpide objektiboen arabera; lanen eta eraikuntzen ezaugarriak eta inguruabarrak kontuan hartuta. Honako hauek izango dira irizpideok:

a) Onura atera duten finken azalera.

b) Finkak, eraikinak, instalazioak, ustiategiak edo urbanizazioak non dauden kokatuta, errepidetik hurbil dauden eta errepidera sartzeko biderik dagoen.

c) Onura atera duten finken Ondasun eta Higiezinen gaineko Zergaren zerga-oinarriak.

d) Lanetako inguruabar partikularren arabera kontribuzio berezia ezartzen duen foru dekretuak zehazten dituenak.

5. Foru arau honek adierazitako kasuetan, kontribuzio bereziak Foru Aldundiaren erabaki bidez ezarriko dira, Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Lan Sailak proposamena eginda.

4. ATALA
**ERREPIDEA USTIATZEA**

## 24. artikulua. Xedea

1. Honako jarduera hauek dagozkio errepidearen ustiapenari: batetik, errepidearen kontserbazioa eta mantentzea eta errepidea babesteko zein hobeto erabiltzeko jarduerak; bestetik, seinaleak jarri eta sarbideak antolatzeko jarduerak eta jabari publikoko eremuen, zortasun-eremuen eta eraginpeko eremuen erabilera.

2. Indarreko araudian zerbitzu publikoak kudeatzeko ezartzen diren zuzeneko edo zeharkako sistemetako edozein erabilita ustiatu ahal dira errepideak.

3. Herri Lan Sailari dagozkio hiri-lurzoruan zehar doazen foru errepideen tarte guztien kontserbazioa eta ustiapena.

## 25. artikulua. Administrazio-emakidak

1. Administrazio-emakidaren araubidearen pean dauden foru errepideek berariazko legerian xedatutakoa bete behar dute.

2. Berariazko legeria horretan eta foru arau honetan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiak zigorrak eta zehapenak jarri ahal izango dizkio emakidadunari kontratuan

trucción como en la de explotación, penalidades y sanciones por el incumplimiento de sus obligaciones contractuales y siempre que sea por causa imputable a este último y las mismas sean eficaces, proporcionadas y adecuadamente disuasorias.

3. Sin perjuicio de que tales obligaciones se detallen con mayor precisión en el correspondiente pliego de cláusulas generales, podrán considerarse penalizables como infracciones de las contempladas por la presente Norma Foral.

### Artículo 26. Regímenes especiales

1. Si la explotación de la carretera foral se efectúa por gestión interesada, concierto con persona natural o jurídica, o por una Sociedad de economía mixta, corresponde a la Diputación Foral acordar los términos de la gestión y la constitución de la Sociedad.

2. Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que en aplicación de los sistemas mencionados resultaren titulares de la explotación de las carreteras, podrán disfrutar de los beneficios fiscales y financieros que para las carreteras en régimen de concesión prevé la legislación vigente. Tales beneficios sólo podrán ser otorgados por la Diputación en el acuerdo anteriormente referido y con los condicionantes propios de la concesión administrativa.

3. El contrato de gestión, el concierto o los estatutos sociales, en su caso, habrán de determinar el correspondiente régimen jurídico administrativo y económico financiero, así como las fórmulas de reparto entre los contratantes o socios de los beneficios y riesgos de la gestión.

CAPITULO III
## USOS Y PROTECCION DE CARRETERAS

SECCION 1ª
**LIMITACIONES DE LA PROPIEDAD**

### Artículo 27. Utilización y conservación

La Diputación Foral de Bizkaia, velará por el óptimo estado de utilización y conservación permanente de la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia.

### Artículo 28. Concepto

Se entiende por "Protección de Carreteras" a los efectos previstos en el presente capítulo, el control de los actos de edificación y uso de las carreteras y de las superficies de protección de las mismas, al objeto de preservarlas en la más óptima forma de utilización y de conservación permanente.

### Artículo 29. Zonas de protección

A los efectos de la presente Norma Foral se establecen en las carreteras de Bizkaia las zonas:

ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, hala eraikuntza-fasean nola ustiapen-fasean; horretarako, baina, ez-betetzea emakidadunari lepora dakiokeen arrazoi batengatik gertatu behar da; horrez gainera, zigorrak edo zehapenak eraginkorra eta tamaina egokikoa izan behar du eta disuasio-eragin egokia izan behar du.

3. Betebehar horiek klausula orokorren pleguan gehiago zehaztu ahal badira ere, betebeharrok ez betetzea zigorra jartzeko arrazoitzat har daiteke, foru arau honetan jasotako arau-haustea baita.

### 26. artikulua. Araubide bereziak

1. Foru errepidearen ustiapena kudeaketa interesdun bidez, pertsona natural edo juridiko batekin egindako itun bidez edo ekonomia mistoko sozietate baten bidez egiten bada, orduan foru aginduari dagokio kudeaketa eta sozietatearen eraketa nola egingo diren erabakitzea.

2. Aipatutako sistemak aplikatzearen ondorioz errepideen ustiapenaren titular gertatzen diren pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, gozatu ahal izango dituzte indarreko legeak emakida-araubidearen pean dauden errepideetarako ezartzen dituen zerga- eta finantza-onurak. Aldundiak bakarrik eman ahal izango ditu onura horiek, gorago adierazitako erabaki horren bidez eta administrazio-emakidak berez dituen baldintzekin.

3. Kudeaketa-kontratuan, itunean edo, hala denean, sozietatearen estatutuetan araubide juridiko-administratiboa eta ekonomiko-finantzarioa zehaztu behar dira, bai eta kudeaketaren onurak eta arriskuak kontratugileen edo kideen artean banatzeko formulak ere.

III. KAPITULUA
## ERREPIDEEN ERABILERAK ETA BABESA

1. ATALA
**JABETZAREN MUGAK**

### 27. artikulua. Erabilera eta kontserbazioa

Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideak etengabe egoteaz erabilera- eta kontserbazio-egoera onean.

### 28. artikulua. Kontzeptua

Kapitulu honetan aurrez ikusitako ondorioetarako, hau da “errepideen babesa”: errepideen eta haiek babesteko azaleren eraikuntza eta erabilera kontrolatzea, etengabe egon daitezen erabilera- eta kontserbazio-egoera onean.

### 29. artikulua. Babes-eremuak

Foru arau honen ondorioetarako, honako eremu hauek ezartzen dira Bizkaiko errepideetan:

● de dominio público.

● de servidumbre.

● de afección.

Se superponen además a las mismas, las siguientes líneas:

● límite de edificación.

● de servicios públicos generales.

A efectos de delimitación de las zonas de protección y de la línea de edificación, los ramales de enlace y las vías de giro de intersecciones que formen parte de algunas de las redes de carreteras, tendrán la misma consideración que la vía de menor jerarquía a la que conecten. En el caso de ramales de enlace, cuando se trata de autopistas, tendrán la consideración de autopista a los efectos de las limitaciones que se señalan en el presente Capítulo.

● jabari publikoko eremua

● zortasun-eremua

● eraginpeko eremua

Aurreko horiez gainera, honako lerro hauek ere kontuan hartu behar dira:

● eraikuntzaren muga-lerroa

● zerbitzu publiko orokorren lerroa

Babes-eremuak eta eraikuntza-lerroa mugatzeko, foru errepide batzuetan dauden lotura-adarrak zein gurutzaguneetako biratze-bideak haiekin bat egiten duten bideen artean maila beherena duen errepideen berdintzat joko dira. Lotura-adarren kasuan, autobideekin bat egiteko badira, autobidetzat joko dira kapitulu honetan adierazten diren mugen ondorioetarako.

## Artículo 30. Zona de dominio público

1. Son de dominio público, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 58 para las travesías, los terrenos ocupados por las carreteras y sus elementos funcionales y una franja de terreno de ocho metros de anchura en autopistas, autovías, vías para automóviles y las carreteras convencionales incluidas en las redes de interés preferente, y de tres metros en el resto de las carreteras, a cada lado de la vía, medidas en horizontal y perpendicularmente al eje de la misma, desde la arista exterior de la explanación.

La arista exterior de la explanación es la intersección del talud del desmonte, del terraplén o, en su caso, de los muros de sostenimiento colindantes con el terreno natural. Existiendo acera, la arista exterior de la explanación coincidirá con el borde exterior de la acera más cercana a la calzada.

En el supuesto especial de puentes, viaductos y otras estructuras u obras similares, se tomará como borde o línea exterior de la explanación la línea de proyección vertical del borde de las obras sobre el terreno. Será en todo caso de dominio público el terreno ocupado por los soportes de la estructura. En el supuesto especial de túneles, la determinación de la zona de dominio público se efectuará además de conformidad con las características geométricas y geológicas del terreno y con la altura de éste sobre el túnel.

2. Se considera elemento funcional de una carretera toda zona permanentemente afecta a la conservación de la misma o a la explotación del servicio público viario, tales como las destinadas a descanso, estacionamiento, auxilio y atención médica de urgencia, pesaje, parada de autobuses, aceras y otros fines auxiliares o complementarios.

3. Excepcionalmente, se podrá autorizar, en la zona de dominio público de la carretera, obras que tengan por objeto la implantación o reposición de infraestructuras de

## 30. artikulua. Jabari publikoko eremua

1. Foru arau honetako 58. artikuluan zeharbideetarako ezarritakoa gorabehera, honako hauek dira jabari publikokoak: errepideek okupatutako lurrak eta haien elementu funtzionalak, eta errepideko lur-zerrenda bat. Lur-zerrenda horrek zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; gainerako errepideetan, berriz, hiru metroko zabalera. Zerrenda horiek bidearen alde bietan egongo dira, eta horizontalean eta bidearen ardatzarekiko perpendikularrean daude neurtuta, laugunearen kanpoko ertzetik.

Laugunearen kanpoko ertza lur naturalaren eta harekin mugakide diren honako hauen arteko gurutzagunea da: lur-erauzketaren ezponda, lubeta edo, hala denean, eusteko hormak. Espaloia badago, laugunearen kanpoko ertza galtzadatik hurbilen dagoen espaloiaren kanpoko ertza izango da.

Zubi, bidezubi edo antzeko egitura bereziren bat badago, honako hau izango da laugunearen kanpoko ertza edo lerroa: lurren gaineko lanen ertzarekiko proiektatutako lerro bertikala. Edonola ere, egituraren euskarriek hartzen duten lurra beti izango da jabari publikokoa. Tunelen kasuan, jabari publikoko eremua zehazteko, honako hauek ere hartu behar dira kontuan: lurraren ezaugarri geometriko eta geologikoak eta lurrak tunel gainean duen altuera.

2. Honako hauek dira errepide baten elementu funtzionalak: errepidearen kontserbazioari edo bide-zerbitzu publikoari etengabe lotutako eremu guztiak. Besteak beste, honako hauek jotzen dira elementu funtzionaltzat: atsedenguneak, aparkalekuak, larrialdiko laguntza medikurako guneak, pisatzeko guneak, autobusak gelditzako guneak, espaloiak eta beste helburu laguntzaile edo osagarri batzuk dituzten guneak.

3. Salbuespen gisa, errepidearen jabari publikoko eremuan honako lan hauek egiteko baimena eman daiteke: ur-hodien, saneamenduaren, gasaren, telefoniaren, eta elektrizitatearen

redes de conducción de agua, saneamiento, gas, telefonía, electricidad u otras análogas para la prestación de un servicio público de interés general siempre y cuando se justifique debidamente que por motivos físicos o técnicos dicho servicio no puede discurrir sino por la zona de dominio público y siempre que quede garantizada la seguridad vial así como el mantenimiento de la propia carretera.

Se deberá desarrollar mediante el correspondiente Decreto Foral las condiciones a las que se deben sujetar estas autorizaciones a precario, los derechos y obligaciones que asume el/la autorizado/a, el plazo de duración de la autorización, el canon de ocupación que en su caso se fije así como los supuestos de revocación.

No obstante, corresponderá al Diputado/a Foral del Departamento de Obras Públicas autorizar aquellas obras que habiendo sido declaradas de interés público, posean un marcado carácter territorial. Todo ello sin perjuicio de otras competencias concurrentes.

En cualquier caso deberá tratarse de que estas afecciones sean lo menos gravosas posibles para la carretera.

4. En ningún caso podrán colocarse arquetas de registro u otras instalaciones análogas dentro de la calzada y arcenes de la carretera.

Estas instalaciones sí podrán situarse bajo o tras la acera.

5. La Diputación Foral de Bizkaia podrá exigir por razones de tráfico, de conservación de la carretera y de seguridad vial que la conducción subterránea se realice mediante perforación horizontal y sin afectar a la calzada.

### Artículo 31. Zona de servidumbre

1. La zona de servidumbre de las carreteras consistirá en dos franjas de terreno a ambos lados de las mismas, delimitadas internamente por la zona de dominio público definida en el artículo anterior y externamente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación a una distancia de veinticinco metros en las autopistas, autovías, vías para automóviles y las carreteras convencionales incluidas en las redes de interés preferente, y de ocho metros en el resto de las carreteras, medidas desde las citadas aristas.

2. En la zona de servidumbre no podrán realizarse obras ni se permitirán más usos que aquéllos que sean compatibles con la seguridad vial, previa autorización, en cualquier caso, del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, sin perjuicio de otras competencias concurrentes.

3. No obstante lo anterior, el órgano competente de la Diputación Foral autorizará la utilización de la zona de servidumbre por razones de interés general o cuando lo requiera el mejor servicio de la carretera.

4. Excepcionalmente se autorizarán obras que tengan por objeto la implantación o reposición de las conducciones de interés privado siempre y cuando se justifique debida-

sareen azpiegiturak ezarri edo ordezteko lanak eta antzeko lanak. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira: lanok interes orokorreko zerbitzu publiko bat emateko izan behar dira, eta behar bezala justifikatu behar da beti arazo fisikoak edo teknikoak direla medio zerbitzu horiek ezinbestez zeharkatu behar dutela jabari publikoko eremua, eta, betiere, bermatuta geratu behar dira errepidearen bide-segurtasuna eta mantentzea.

Dagokion foru dekretuaren bidez garatu behar dira prekarioan emandako baimen horiek bete beharreko baldintzak, baimena eskuratzen duenak dituen eskubide eta betebeharrak, baimenaren iraupen-epea, lurrak okupatzearen ondoriozko kanona (halakorik ezarriz gero) eta baimena baliogabetzeko kasuak.

Nolanahi ere, Herri Lan Saileko foru diputatuari dagokio interes publikokotzat jota dauden eta lurralde izaera nabarmena duten lanak baimentzea. Betiere, arlo horretan beste erakunde batzuek izan ditzaketen eskumenak gorabehera.

Edozelan ere, beti saiatu behar da lan horien ondoriozko okupazioak ahalik eta arazo gutxien ekar diezaion errepideari.

4. Errepidearen galtzadan eta bazterbideetan ezin izango da inola ere erregistro-kutxatilarik eta antzeko instalaziorik jarri.

Instalazio mota horiek espaloiaren azpian edo ondoren jarri ahal izango dira.

5. Trafikoa, errepidearen kontserbazioa edo bide-segurtasuna direla-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu ahal izango du lurpeko hodiak zulatze horizontal bidez egin daitezela, galtzada ukitu barik.

### 31. artikulua. Zortasun-eremua

1. Errepideen bi aldeetan dauden lur-zerrenda bik osatuko dute zortasun-eremua. Zerrenda horiek, barrutik, aurreko artikuluan zehaztutako jabari publikoko eremuak mugatzen ditu. Kanpotik, ordea, laugunearen kanpoko ertzekiko paralelo dauden bi lerrok mugatzen dituzte. Lerro horiek laugunearen kanpoko ertz horretatik hogeita bost metrora egongo dira autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; gainerako errepideetan, berriz, zortzi metrora.

2. Zortasun-eremuan ezin izango da lanik egin, eta bide-segurtasunarekin bateragarri diren erabilerak bakarrik egin daitezke. Horretarako, edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera.

3. Aurrekoa hala izanik ere, Foru Aldundiko organo eskudunak zortasun-eremua erabiltzeko baimena eman dezake interes orokorreko arrazoiengatik edo errepidearen zerbitzua hobetzeko beharrezko denean.

4. Salbuespen gisa, interes pribatuko hodiak ezarri edo ordezteko lanak ere baimenduko dira, baldin eta arrazoi fisikoak edo teknikoak direla medio ezinbestez egin behar

mente que por motivos físicos o técnicos las mismas no pueden discurrir sino por la zona de servidumbre

badira zortasun-eremuan.

### Artículo 32. Zona de afección

1. La zona de afección de una carretera consistirá en dos franjas de terreno a ambos lados de la misma, delimitadas internamente por la zona de servidumbre y externamente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación a una distancia de cien metros en las autopistas, autovías, vías para automóviles y carreteras convencionales incluidas en las redes de interés preferente, y de cincuenta metros en las carreteras pertenecientes a la red básica, y treinta metros en el resto de las carreteras, medidas desde las citadas aristas.

2. Para ejecutar en la zona de afección cualquier tipo de obras e instalaciones fijas o provisionales, cambiar el uso o destino de las mismas y plantar o talar árboles, se requerirá la previa autorización del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, sin perjuicio de otras competencias concurrentes.

### 32. artikulua. Eraginpeko eremua

1. Errepideen bi aldeetan dauden lur-zerrenda bik osatuko dute eraginpeko eremua. Zerrenda horiek, barrutik, zortasun-eremuak mugatzen ditu. Kanpotik, ordea, laugunearen kanpoko ertzekiko paralelo dauden bi lerrok mugatzen ditu. Lerro horiek laugunearen kanpoko ertz horretatik ehun metrora egongo dira autobide, autobia, automobilbide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; berrogeita hamar metrora oinarrizko sareko errepidetan, eta, gainerako errepideetan, berriz, hogeita hamar metrora.

2. Eraginpeko eremuan edozein lan mota eta instalazio finkoak zein behin-behinekoak egiteko, erabilera aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo mozteko, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera.

### Artículo 33. Prohibición de publicidad

Fuera de los tramos urbanos de las carreteras queda prohibido realizar publicidad en cualquier lugar visible desde la zona de dominio público de la carretera, sin que esta limitación otorgue en ningún caso derecho a indemnización. En las carreteras de circunvalación, aunque discurra por zona urbana regirá esta misma prohibición.

En los tramos urbanos la publicidad estará sometida a las ordenanzas municipales, debiendo situarse fuera de la zona de dominio público y no afectará a la señalización, iluminación ni balizamiento de la carretera.

A los efectos de este artículo no se consideran publicidad los carteles informativos, los anuncios propios de las estaciones de servicio o instalaciones auxiliares de la carretera, siempre que los mismos sean instalados en el interior de la parcela en la que se ubiquen las citadas instalaciones auxiliares previa la oportuna autorización del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia

La forma, el tamaño y color de la señalización deberá respetar la normativa internacional, europea y estatal de carácter básico.

Los gastos de establecimiento, conservación y retirada de los paneles o carteles publicitarios serán asumidos por las personas o entidades que realicen la publicidad.

Será objeto de desarrollo mediante el correspondiente Decreto Foral, los supuestos autorizables, las condiciones a las que se deben sujetar estas autorizaciones, los derechos y obligaciones que asume la persona autorizada, el plazo de vigencia de la autorización así como los supuestos de revocación.

### 33. artikulua. Publizitatea jartzeko debekua

Hiri barruko bide-tarteetatik kanpo, debekatuta dago errepidearen jabari publikoko eremutik ikus daitekeen edozein tokitan publizitatea jartzea, eta debeku horrek ez du inola ere eskubiderik emango kalte-ordainak jasotzeko. Ingurabideetan ere debeku hori ezarriko da, ingurabidea hirigunetik igarotzen bada ere.

Hiri barruko bide-tarteetan, publizitateak udal ordenantzetan ezarritakoa bete behar du; nolanahi ere, jabari publikoko eremutik kanpo jarri behar da, eta ez du eraginik izango errepideko seinale, argi eta balizetan.

Artikulu honen ondorioetarako, honako hauek ez dira publizitatetzat jotzen: errepideko informazio-kartelak eta zerbitzuguneetako edo errepideko instalazio laguntzaileetako iragarkiak. Edonola ere, instalazio laguntzaile horiek dauden partzelaren barruan jarri behar dira iragarkiok, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak dagokion baimena eman ondoren.

Seinaleen forma, tamaina eta kolorean, estatuko, Europako eta nazioarteko oinarrizko araudia bete behar da.

Panelak eta kartelak jarri, kontserbatu eta kentzeko gastuak publizitatea egiten duten pertsona edo erakundeen esku geratuko dira.

Honako alderdi hauek foru dekretu bidez zehaztu behar dira: baimena jaso dezaketen kasuak, baimen horiek bete beharreko baldintzak, baimendutako pertsonak dituen eskubide eta betebeharrak, baimenaren iraupenepea eta baimena baliogabetzeko kasuak.

### Artículo 34. Línea de edificación

1. La línea de edificación es exterior a la zona de servidumbre y se sitúa a ambos lados de las carreteras a cincuenta metros en autopistas, autovías y vías para

### 34. artikulua. Eraikuntza-lerroa

1. Eraikuntza-lerroa zortasun-eremutik kanpo dago, errepideen bi aldeetan. Galtzadaren kanpoko ertzetik berrogeita hamar metrora dago autobide, autobia eta automo-

automóviles, a veinticinco metros en carreteras convencionales de las redes de interés preferente y básica, a dieciocho metros en carreteras de la red comarcal y complementaria y a doce en la red local, medidos desde la arista exterior de la calzada.

No obstante lo anterior, en las variantes o carreteras de circunvalación que formando parte de la comarcal o local se construyan con el objeto de eliminar las travesías de las poblaciones, la línea límite de edificación se situará a veinticinco metros medidos horizontalmente a partir de la arista exterior de la calzada en toda la longitud de la variante.

Se entiende que la arista exterior de la calzada es el borde derecho del carril exterior de la carretera en el sentido de la marcha.

2. Desde esta línea hasta la carretera queda prohibido cualquier tipo de obra de construcción tanto sobre rasante como bajo rasante.

No obstante, en el suelo comprendido entre la zona de servidumbre (incluida ésta) y la línea de edificación podrán ser autorizados a precario usos u obras justificadas de carácter provisional o instalaciones ligeras fácilmente desmontables.

En las edificaciones e instalaciones ya existentes por delante de la línea de edificación, únicamente podrán realizarse, de conformidad con lo dispuesto en la normativa institucional sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, obras de reparación por razones de higiene, conservación, ornato.

Asimismo podrán realizarse obras de consolidación cuando no estuviere prevista la expropiación o demolición del terreno que alberga la construcción o instalación para la ejecución de una actuación promovida por la Diputación Foral de Bizkaia en un plazo de 4 años a contar desde la fecha de solicitud.

La autorización de estas obras de consolidación requerirá la previa renuncia de su titular al incremento del valor expropiatorio que deberá ser inscrita en el Registro de la Propiedad.

Esta renuncia podrá ser cancelada a petición del interesado:

— En los supuestos de modificación de la clasificación de la carretera que hagan desaparecer la afección de la edificación o instalación de que se trate por la línea de edificación.

— En los casos en los que la Diputación Foral de Bizkaia ceda la carretera a un Ayuntamiento, previo informe favorable de la Administración municipal.

Las condiciones a las que se deben sujetar estas autorizaciones, serán desarrolladas mediante el correspondiente Decreto Foral.

3. Con carácter general, en las carreteras que discurran total o parcialmente por zonas urbanas, el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, podrá establecer

bil-bideetan; hogeita bost metrora, lehentasunezko eta oinarrizko sareetako errepide arrutetan; hemezortzi metrora, eskualde-sareko eta sare osagarriko errepideetan, eta, hamabi metrora, sare lokalean.

Aurrekoa gorabehera, herri barruko zeharbideak ekiditeko eraikitzen diren eskualde-sareko edo sare lokaleko saihesbide edo ingurabideetan, eraikuntza-lerroa galtzadaren kanpoko ertzetik hogeita bost metrora egongo da, saihesbide osoan zehar.

Honako hau da galtzadaren kanpoko ertza: errepidearen kanpoaldeko erreiaren eskuineko ertza, zirkulazioaren noranzkoan.

2. Lerro horretatik errepideraino debekatuta dago edozein eraikuntza-lan egitea, sestraren gainean zein sestrapean.

Edonola ere, zortasun-eremuaren (eremu hori barne) eta eraikuntza-lerroaren arteko lurzoruan, behin-behineko erabilera eta lanak eta erraz desmuntatu daitezkeen instalazio arinak baimendu ahal izango dira, prekarioan.

Eraikuntza-lerroaren aurrean lehendik dauden eraikin eta instalazioetan, errepidearen higiene, kontserbazio edo apainketaren ondoriozko konponketa-lanak bakarrik egin ahal izango dira, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko babestutako jarduerei buruzko araudi instituzionalean xedatutakoaren arabera.

Horrez gainera, errepidea finkatzeko lanak egin ahal izango dira, baldin eta eskaera egiten den egunetik ondorengo 4 urteetan ez badago aurrez ikusita Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako jarduera baten ondorioz eraikina edo instalazioa hartzen duen lurra desjabetzea edo eraikin edo instalazio hori eraistea.

Errepidea finkatzeko lan horiek baimentzeko, titularrak aurretik uko egin behar dio desjabetzearen ondoriozko balio-areagotzeari; uko egite hori jabetza-erregistroan geratuko da inskribatuta.

Interesdunak eskatuta baliogabetu ahal izango da uko egite hori, kasu hauetan:

— Errepidearen sailkapena aldatzen denean, baldin eta eraikuntza-lerroak dagokion eraikinean edo instalazioan duen eragina desagertzen bada horren ondorioz.

— Udal administrazioak aldeko txostena eman ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak errepidea udal bati lagatzen dionean.

Foru dekretu bidez ezarriko dira baimen horiek bete beharreko baldintzak.

3. Oro har, osorik edo zati batean hirigunetik igarotzen diren errepideetan, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak aurreko paragrafoan ezarritako distantzian baino

la línea límite de edificación a una distancia inferior a la fijada en el apartado anterior, siempre que lo permita el planeamiento urbanístico correspondiente que sea informado y en su caso autorizado, por la Diputación Foral de Bizkaia.

distantzia txikiagoan ezar dezake eraikuntza-lerroa, baldin eta dagokion hirigintza-plangintzak hori egitea baimentzen badu eta Bizkaiko Foru Aldundiak plangintza horren aldeko txostena eta baimena ematen baditu.

4. Asimismo, el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, previo informe de las entidades locales afectadas, podrá, fijar una línea límite de edificación inferior a la establecida con carácter general, aplicable a determinadas carreteras en zonas o comarcas perfectamente delimitadas por razones geográficas o socioeconómicas.

4. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak, ukitutako toki-erakundeek txostena eman ondoren, oro har ezarritako eraikuntza-lerroa baino distantzia txikiagoan dagoen muga-lerro bat ezar dezake zenbait errepiderentzat, arrazoi geografikoak edo sozioekonomikoak direla medio ondo zehaztutako inguru edo eskualdeetan.

5. El órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, podrá autorizar excepcionalmente en supuestos singulares construcciones a menor distancia de la señalada en el apartado 1 de este artículo, cuando exista un continuo edificatorio y siempre que quede garantizada la seguridad viaria mediante la ordenación de los márgenes de las carreteras y el adecuado control de accesos.

5. Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak salbuespenez baimendu ahal izango ditu artikulu honen lehen paragrafoan adierazita dagoen distantzian baino distantzia txikiagoan dauden eraikuntza batzuk, baldin eta eraikuntzagune jarraitu bat badago eta bide-segurtasuna bermatuta geratzen bada errepideen ertzen antolamenduaren bidez eta sarbideen kontrol egokiaren bidez.

Se entiende por continuo edificatorio el tramo urbanísticamente homogeneizado por la existencia de un conjunto de edificaciones cerradas que mantienen la alineación establecida en el planeamiento urbanístico

Honako hau da eraikuntzagune jarraitu bat: hirigintza-plangintzan ezarritako lerrokadurari eusten dioten eraikin itxi batzuen multzoak hirigintzari dagokionez osatzen duten tarte homogeneoa.

6. En la zona de protección de las carreteras forales, siempre que en los Planes Generales de Ordenación Urbana o en las Normas Subsidiarias de Planeamiento se configuren Núcleos Rurales o denominación equivalente en suelo no urbanizable, para la determinación de la línea de edificación se estará a lo dispuesto expresamente en dichos instrumentos de planeamiento siempre que quede garantizada la seguridad vial.

6. Baldin eta hiri-antolamenduko plan orokorretan edo plangintzako arau subsidiarioetan landa-guneak edo antzekoak sartzen badira lurzoru urbanizaezinean, foru errepideen babes-eremuak plangintza-tresna horietan berariaz xedatutakoa bete behar du eraikuntza-lerroa zehazteko, betiere bide-segurtasuna bermatuta.

7. Las intervenciones que se realicen contraviniendo lo dispuesto en el presente artículo facultarán al órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia para ordenar su demolición a costa del interesado siempre que no sean susceptibles de ser legalizadas.

7. Artikulu honetan ezarritakoaren kontra egiten diren esku-hartzeek ahalmena emango diote Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunari esku-hartzeok interesdunaren kontura eraits daitezela agintzeko, betiere haiek legeztatzerik ez badago.

### Artículo 35. Expropiación en zona de servidumbre y línea límite de edificación

1. En la zona de servidumbre y en la comprendida hasta la línea límite de edificación, el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia podrá proceder a la expropiación de los bienes existentes, entendiéndose implícita la declaración de utilidad pública, siempre que disponga previamente de un proyecto aprobado de trazado o de construcción para reparación, ampliación o conservación de la carretera que lo hiciera indispensable o conveniente.

2. La ocupación temporal de la zona de servidumbre para la ejecución de obras o tareas de mantenimiento y conservación de la carretera dará derecho a indemnización en los términos regulados en la legislación sobre expropiación forzosa.

El abono de está indemnización correrá a cargo de la Diputación Foral de Bizkaia quien podrá repercutir la misma en el responsable o beneficiario de los hechos que

### 35. artikulua. Desjabetzea zortasun-eremuan eta eraikuntzaren muga-lerroan egitea

1. Zortasun-eremuan eta eraikuntza-lerrorainoko eremuan, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak ondasunak desjabetu ahal izango ditu (onura publikoko adierazpena inplizituki ulertuta), baldin eta aurretik onartuta badauka trazaturako edo eraikuntzarako proiektu bat, ezinbestekoa edo komenigarria dena errepidea konpondu, zabaldu edo kontserbatzeko.

2. Zortasun-eremu bat aldi baterako okupatzen bada, errepidea mantendu eta kontserbatzeko lanak egiteko, okupazio horrek eskubidea emango du kalte-ordainak jasotzeko, nahitaezko desjabetzeari buruzko legerian ezarritako moduan.

Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko ditu kalte-ordainak, eta aukera izango du kalte-ordainok aldi baterako okupazioaren arduradunari edo onuradunari jasana-

motiven la ocupación temporal.

## Artículo 36. Línea de servicios generales

1. A ambos lados también de la carretera, y en una franja de terreno de cuatro metros de anchura situado con inmediación a la línea de servidumbre, por la parte interior de la misma hacia la carretera, se establece la denominada línea de servicios generales destinada a servir de alojamiento a los servicios públicos no directamente relacionados con el servicio de la carretera.

2. Los tendidos e instalaciones aéreas que crucen sobre las carreteras deberán cumplir las condiciones técnicas y de seguridad al efecto establecidas.

3. El gálibo será suficiente para evitar accidentes.

4. Los postes de sustentación, los tendidos de líneas eléctricas, telefónicas, telegráficas u otras instalaciones aéreas se situarán fuera de la zona de dominio público a una distancia mínima de vez y media su altura medida desde la arista exterior de la calzada. En el caso de líneas eléctricas de alta tensión la distancia mínima será, además, la misma que la requerida para construcciones en general.

5. Las riostras y anclajes no podrán tampoco colocarse en zona de dominio público.

6. En el caso de reposiciones o afectaciones de servicios existentes, deberá estudiarse cada caso de manera individualizada.

## Artículo 37. Limitación y reordenación de accesos

1. La Diputación Foral, a través de sus órganos competentes, podrá limitar los accesos a las carreteras del Territorio Histórico y establecer con carácter obligatorio los lugares en los que tales accesos puedan construirse atendiendo a la normativa vigente, intensidad del tráfico, seguridad vial, funcionalidad de la carretera y a los planes o proyectos de ampliación, mejora, variación y cualquier obra en la carretera que pueda afectar a la instalación. Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia podrá reordenar los accesos existentes con objeto de mejorar la explotación de la carretera y la seguridad vial, pudiendo expropiar para ello los terrenos necesarios.

2. La Diputación Foral de Bizkaia excepcionalmente podrá autorizar nuevos accesos directos así como accesos provisionales de obra cuando se justifique debidamente que por motivos físicos o técnicos no existe otra alternativa posible y más adecuada así como que se cumplan los siguientes requisitos:

— Se garantice la seguridad vial.

— Se garanticen las condiciones de visibilidad de la carretera atendiendo a la velocidad establecida en la normativa vigente en materia de trazado.

— Se respete la normativa e instrucciones técnicas en

razteko.

## 36. artikulua. Zerbitzu orokorren lerroa

1. Errepidearen alde bietan, zortasun-lerroaren ondoko lau metroko lur-zerrenda batean, zerrenda horren barruan eta errepiderantz, zerbitzu orokorren lerroa dago; lerro hori errepidearen zerbitzuari zuzenean lotuta ez dauden zerbitzu publikoak hartzeko da.

2. Errepidea gainetik gurutzatzen duten lineek eta aireko instalazioek berariaz ezarritako baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak bete behar dituzte.

3. Galiboa istripuak ekiditeko behar bestekoa izango da.

4. Zutoinak, elektrizitate-lineak, telefono-lineak, telegrafo-lineak eta aireko beste instalazioak jabari publikoko eremutik kanpo jarriko dira, galtzadaren kanpoko ertzetik gutxienez ere haien altuera halako bat eta erdiko distantzian. Goi-tentsioko linea elektrikoetan, gutxieneko distantzia eraikuntzetarako oro har eskatutakoa izango da.

5. Horrez gainera, txarrantxak eta ainguraketak ezin izango dira jabari publikoko eremuan jarri.

6. Dauden zerbitzuak ordeztu edo okupatuz gero, banan-banan aztertu beharko da kasu bakoitza.

## 37. artikulua. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea

1. Foru Aldundiak, bere organo eskudunen bitartez, Lurralde Historikoko errepideetarako sarbideak mugatu ahal izango ditu, eta ezarri ahal izango du derrigorrean non eraiki behar diren sarbideak, honako alderdi hauek kontuan hartuta: indarreko araudia, trafikoaren emaria, errepidearen funtzionaltasuna, errepidea zabaldu, hobetu eta aldatzeko planak eta proiektuak eta instalazioan eragina izan dezakeen errepideko beste edozein lan. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak sarbideak berrantolatu ahal izango ditu, errepidearen ustiapena eta bide-segurtasuna hobetzeko; horretarako, beharrezko diren lurrak desjabetu ahal izango ditu.

2. Salbuespenez, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzeneko sarbide berriak eta lanetarako behin-behineko sarbideak baimendu ahal izango ditu, baldin eta behar bezala justifikatzen bada arrazoi fisiko edo teknikoak direla medio ez dagoela beste aukerarik edo ez dagoela aukera egokiagorik, eta honako baldintza hauek betetzen badira:

— Bide-segurtasuna bermatuta egotea.

— Errepidearen ikuspena bermatuta egotea, trazatuaren arloko indarreko araudian ezarritako abiadura kontuan hartuta.

— Indarreko araudia eta jarraibide teknikoak betetzea.

vigor.

Cuando los accesos no previstos se soliciten por los propietarios o usufructuarios de una propiedad colindante, o por otros directamente interesados, el órgano competente de la Diputación Foral podrá convenir con éstos la aportación económica procedente en cada caso, siempre que el acceso sea de interés público o exista imposibilidad de otro alternativo y más adecuado.

Aurrez ikusi gabeko sarbide horiek jabego mugakide baten jabeek edo gozamendunek edo zuzeneko interesa duten beste batzuek eskatzen badituzte, Foru Aldundiko organo eskudunek kasuan kasuko ekarpen ekonomikoa itundu ahal izango dute haiekin, betiere sarbidea interes publikokoa bada edo beste aukera egokiagorik ez badago.

3. Los accesos definitivos que afecten a terrenos no clasificados como suelo urbano, deberán respetar las siguientes distancias mínimas:

3. Lurzoru urbanizagarritzat jota ez dauden lurrak ukitzen dituzten behin betiko sarbideek honako distantzia hauek bete behar dituzte, gutxienez:

| EBBE (EGUNEKO BATEZ BESTEKO EMARIA)<br><br>IMD (INTENSIDAD MEDIA DIARIA) | Distantziak metrotan, lehentasunezko sarean<br><br>Distancias en metros en la red de interés preferente | Distantziak metrotan, oinarrizko sarean<br><br>Distancias en metros en la red básica | Distantziak metrotan, eskualdesarean<br><br>Distancias en metros en la red comarcal | Distantziak metrotan, sare lokalean<br><br>Distancias en metros en la red local |
|---|---|---|---|---|
| **EBBE / IMD < 500** | 200,00 | 150,00 | 100,00 | 100,00 |
| **500 < EBBE / IMD < 1.500** | 200,00 | 150,00 | 100,00 | 100,00 |
| **1.500 < EBBE / IMD < 3.000** | 200,00 | 200,00 | 150,00 | 150,00 |
| **3.000 < EBBE / IMD < 10.000** | 250,00 | 200,00 | 200,00 | 200,00 |

* Donde la IMD será la obtenida según una prognosis de tráfico a 10 años, y nunca con incrementos negativos

Excepcionalmente podrán autorizarse nuevos accesos para carreteras de la red no funcional tipo BI-4XXX en distancias inferiores a las fijadas como mínimas, siempre y cuando quede garantizada la seguridad vial.

* EBBE hori trafikoaren 10 urterako prognosi baten bidez kalkulatuko da, eta inoiz ez dira kontuan hartuko areagotze negatiboak.

Salbuespen gisa, funtzionalak ez diren BI-4XXX erako errepideen sarerako sarbide berriak gutxieneko distantzietan baino distantzia txikiagoetan egitea baimendu ahal izango da, betiere bide-segurtasuna bermatuta geratzen bada.

4. No se autorizarán accesos sobre autopistas y vías para automóviles así como a las variantes urbanas. En autovías la accesibilidad vendrá condicionada al informe vinculante del órgano competente del Departamento de Obras Públicas.

4. Ez da sarbiderik baimenduko autobideetan eta automobil-bideetan, ez eta hiriko saihesbidetara sartzeko ere. Autobietan sarbideak egitea Herri Lan Saileko organo eskudunaren txosten loteslearen araberakoa izango da.

5. Los accesos que tengan por origen actuaciones urbanísticas tales como parcelaciones, segregaciones, reparcelaciones, etc. sólo podrán ser autorizados desde un sistema general o local diseñado de forma que se asegure el mejor reparto de los flujos circulatorios y se minimicen los efectos negativos que la conexión pueda suponer.

5. Partzelazioak, partzela-banaketak, birpartzelazioak eta antzeko hirigintza-jarduerak egitearen ondorioz egiten diren sarbideak sistema orokor edo lokal baten barruan soilik baimendu ahal izango dira; sistema hori zirkulazio-fluxuak hobeto banatzeko eta konexio-bide horiek sor ditzaketen eragin negatiboak arintzeko egon behar da diseinatuta.

La tipología del acceso vendrá condicionada por las intensidades de tráfico y las características de las carreteras receptoras.

Sarbidearen tipologia trafikoaren emariaren eta errepide hartzailearen ezaugarrien araberakoa izango da.

La Diputación Foral de Bizkaia podrá autorizar un acceso directo cuando quede suficientemente justificada la imposibilidad de otro tipo de acceso siempre que su ubicación no afecte de forma importante al tráfico.

Bizkaiko Foru Aldundiak zuzeneko sarbide bat onartu ahal izango du, baldin eta nahikotasunez justifikatuta badago beste sarbide mota bat ezinezkoa dela eta sarbidearen kokapenak ez badu eragin handirik trafikoan.

6. Cuando se solicite un acceso no previsto que afecte a propietarios de terrenos colindantes, el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia podrá iniciar, en defecto de acuerdo de los interesados, el expediente

6. Aurrez ikusi gabeko sarbide bat egin nahi bada eta sarbide horrek lur mugakideak ukitzen baditu, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak —interesdunekin adostasun bat lortu ez badu— desjabetze-espedientea hasi

expropiatorio a efectos de obtener los terrenos que se precisen para ejecutar el nuevo acceso y nombrar como beneficiario de la expropiación a los propietarios destinatarios del mismo siempre que el acceso sea de interés público y no resulte posible desde el punto de vista técnico la ejecución de otro acceso alternativo y más adecuado.

7. Los accesos con autorización administrativa preexistentes a la realización por la Diputación Foral de Bizkaia de obras de mejora de las carreteras que afecten a aquéllos, deberán ser repuestos por la misma sin perjuicio de la utilización de las facultades a que se refieren los dos primeros apartados del presente artículo

8. Cuando en la revisión de un planeamiento urbanístico se proceda a reclasificar una superficie anteriormente no urbanizable en la que existieran fincas y propiedades con accesos autorizados, dichos accesos quedan caducados automáticamente, debiendo disponerse un plan de accesos acorde con las estipulaciones del apartado anterior.

9. No podrán variarse las características ni el uso de los accesos sin la previa autorización del Departamento de Obras Públicas. Este podrá obligar al beneficiario a restablecer las características o usos modificados, dándole un plazo máximo de un mes para regularizar la situación, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

10. La conservación de los accesos deberá ser asumida por los beneficiarios de los mismos.

SECCION 2ª
**USO DE LAS CARRETERAS**

## Artículo 38. Utilización común general

En tanto constituyen bienes de dominio público, el uso común general de las carreteras se ejercerá libremente, con arreglo a la naturaleza de las mismas, a los actos de afectación y apertura al uso público y a las disposiciones en vigor.

El resto de las utilizaciones se sujetarán a las disposiciones específicas que les resulten de aplicación, correspondiendo al Departamento de Obras Públicas establecer el condicionado a que, por lo que respecta a las condiciones de las carreteras a usar, deberán ajustarse las autorizaciones para transportes especiales, pruebas deportivas y otros usos excepcionales de la carretera, tales como aquellos que supongan un incremento extraordinario de la carga de tráfico, supuestos que serán determinados mediante el correspondiente Decreto Foral.

No obstante lo anterior, toda utilización excepcional y temporal que comporte un deterioro excesivo de una carretera conllevará la obligación de su reparación por parte del responsable.

Se considerará como deterioro excesivo aquel que no produciría el tráfico ordinario de la carretera.

Corresponderá a la administración titular de la carre-

ahal izango du, sarbide berria egiteko beharrezko diren lurrak eskuratzeko eta sarbidearen hartzaile diren jabeak desjabetzearen onuradun izendatzeko. Horretarako, sarbidea interes publikokoa izan behar da, eta, ikuspuntu teknikotik, ezinezko izan behar da beste sarbiderik edo beste sarbide egokiagorik egitea.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak lanak egiten baditu, lehendik zeuden sarbideetan eragina duten errepideak hobetzeko eta sarbide horiek administrazio-baimena badute, orduan sarbideok lehengoratu behar izango ditu Aldundiak; hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak artikulu honetako lehen paragrafo bietan adierazitako eskumenak erabili ahal izango ditu.

8. Hirigintza-plangintza bat berrikusten denean baimendutako sarbideak dituzten finkak eta jabetzak dituen azalera urbanizaezin bat birsailkatzen bada, sarbideak automatikoki iraungita geratuko dira, eta sarbideetarako plan bat prestatu beharko da, aurreko paragrafoan ezarritako estipulazioen araberakoa.

9. Herri Lan Sailaren baimenik gabe ezin izango dira aldatu sarbideen ezaugarriak eta erabilera. Sailak behartu ahal izango du onuraduna aldatutako ezaugarriak eta erabilerak berrezartzera: gehienez ere hilabete emango dio egoera erregularizatzeko, kasuan-kasuan ezar diezazkiokeen zehapenak gorabehera.

10. Sarbideen onuradunak arduratu behar dira haien kontserbazioaz.

2. ATALA
**ERREPIDEEN ERABILERA**

## 38. artikulua. Erabilera arrunt orokorra

Jabari publikoko ondasunak direnez, errepideen erabilera arrunt orokorra librea izango da, errepideen ezaugarrien, haiek okupatzeko eta erabilera publikorako irekitzeko egintzen eta indarreko xedapenen arabera.

Gainerako erabilerek, berriz, aplikatu behar zaizkien xedapen espezifikoak bete behar dituzte. Erabili beharreko errepideen baldintzei dagokienez, Herri Lan Sailak ezarriko du zein baldintza bete behar dituzten garraio bereziak, kirol probak eta beste erabilera berezi batzuk (esaterako, trafiko-kargaren aparteko areagotzea dakartenak) egiteko baimenek. Dagokion foru dekretuan zehaztuko dira kasu horiek guztiak.

Aurrekoa gorabehera, ezohiko erabilera eta aldi baterako erabilera batek errepide baten gehiegizko narriadura eragiten badu, erantzulea behartuta dago errepidea konpontzera.

Errepideko ohiko zirkulazioak sortzen duen narriadura baino handiagoa dena jotzen da gehiegizko narriaduratzat.

Errepidearen administrazio titularrak eman behar du

tera otorgar la debida autorización, así como determinar el alcance de la reparación, previa audiencia del interesado.

konponketa egiteko baimena, eta, interesdunari entzun ondoren, nolako konponketa egin behar den zehaztu behar du.

## Artículo 39. Limitaciones de uso

1. La Diputación Foral de Bizkaia a través de sus órganos competentes, podrá imponer limitaciones temporales o permanentes a la circulación en ciertos tramos o partes de las carreteras, cuando las condiciones, situación, exigencias técnicas o de seguridad vial así lo requirieren.

2. Las limitaciones podrán consistir tanto en la prohibición como en la obligación de transitar en determinadas condiciones fijadas en la correspondiente autorización administrativa.

3. La Diputación Foral de Bizkaia podrá solicitar al interesado la presentación de un estudio de impacto del uso pretendido sobre el sistema viario en el que deberá justificarse que el mismo no produce daños a la carretera, que la seguridad de la misma queda debidamente garantizada y que se toman las medidas necesarias para reducir las posibles afecciones al resto de usuarios de la carretera.

4. La Diputación Foral de Bizkaia podrá solicitar al interesado la constitución de una fianza para responder de eventuales daños.

## 39. artikulua. Erabilera murriztea

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere organo eskudunen bitartez, aldi baterako edo modu iraunkorrean murriztu ahal izango du zirkulazioa errepideetako tarte edo zati batzuetan, baldin eta errepidearen baldintzak, egoera, eskakizun teknikoak edo bide-segurtasuna direla-eta beharrezko bada.

2. Murrizketa horiek honako hauek izan ahal izango dira: debekua eta dagokion administrazio-baimenean ezarritako baldintzetan zirkulatu beharra.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu ahal izango dio interesdunari aurkez dezala egin nahi duen erabilerak bidesistemaren gainean izango duen eraginari buruzko azterlan bat. Azterlan horren bidez justifikatu behar du erabilerak ez diola kalterik egiten errepideari, bide-segurtasuna behar bezala bermatuta geratzen dela eta errepidearen gainerako erabiltzaileengan sor ditzakeen eraginak murrizteko beharrezko diren neurriak hartzen direla.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak fidantza bat eratu dezala eskatu ahal izango dio interesdunari, gerta litezkeen kalteak ordaintzeko.

## Artículo 40. Instalaciones auxiliares

La Diputación Foral podrá establecer instalaciones de aforo, estaciones de pesaje y demás medios instrumentales que resulten necesarios para conocimiento y control de las características de la demanda de tráfico sobre la infraestructura de las carreteras.

## 40. artikulua. Instalazio laguntzaileak

Foru Aldundiak honako hauek ezarri ahal izango ditu, errepideen azpiegituraren gaineko trafiko-eskaeraren ezaugarriak ezagutu eta kontrolatzeko: zirkulazio-emaria neurtzeko instalazioak, pisatzeko estazioak eta beste tresna batzuk.

SECCION 3ª
**REGIMEN GENERAL DE AUTORIZACIONES Y LEGALIZACIONES**

3. ATALA
**BAIMEN ETA LEGEZTAPENEN ARAUBIDE OROKORRA**

## Artículo 41. Consultas previas

Con carácter previo a la presentación de la solicitud de autorizaciones, los interesados podrán formular a la Diputación Foral Bizkaia consulta sobre la viabilidad de la actuación pretendida así como obtener información sobre los requisitos técnicos y jurídicos exigibles en virtud de la normativa que resulte de aplicación.

La respuesta a estas consultas no tendrá carácter vinculante.

## 41. artikulua. Aurretiazko kontsultak

Baimenetarako eskabidea aurkeztu aurretik, interesdunek kontsulta egin ahal izango diote Bizkaiko Foru Aldundiari, jakiteko ea egin nahi duten jarduera hori bideragarria den eta zeintzuk diren aplikatu beharreko araudiaren arabera eskatu ahal zaizkien baldintza teknikoak eta juridikoak.

Kontsulta horiei emandako erantzuna ez da loteslea izango.

## Artículo 42. Documentación

1. Las solicitudes de autorización habrán de ir acompañadas de planos, memoria y presupuesto descriptivos de las obras o usos y de su localización, con el fin de que el Departamento de Obras Públicas pueda comprobar si resultan adecuados a los preceptos de la presente Norma Foral, de la normativa que resulte de aplicación y a los Planes Territoriales y Urbanísticos en cuanto regulen la

## 42. artikulua. Dokumentazioa

1. Baimen-eskabideekin batera, lan edo erabilerak eta haien kokapena azaltzeko planoak, memoria eta aurrekontua aurkeztu behar dira, Herri Lan Sailak egiaztatu ahal izateko ea haiek guztiak bat datozen foru arau honetan, aplikatu beharreko araudian eta —errepideen arloa arautzen duten neurrian— lurralde- zein hirigintzaplanetan xedatutakoarekin.

materia de carreteras.

2. El Departamento de Obras Públicas, examinada la documentación presentada, podrá requerir el complemento que considere pertinente para resolver. Asimismo podrá requerir la constitución de un depósito previo para garantizar la correcta ejecución de la obra.

2. Herri Lan Sailak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu. Horrez gainera, aurretik gordailu bat eratzeko eskatu ahal izango du, lanak behar bezala egiten direla bermatuta gera dadin.

## Artículo 43. Denegación

Las autorizaciones se denegarán por causas fundadas en la presente Norma Foral, en el Planeamiento Sectorial de carreteras y demás normativa que resulte de aplicación.

## 43. artikulua. Baimena ukatzea

Baimenak foru arau honetan, Errepideen Plan Sektorialean eta aplikatu beharreko gainerako araudian oinarritutako arrazoiengatik ukatu ahal izango dira.

## Artículo 44. Caducidad

1. Las autorizaciones caducarán en los siguientes supuestos:

a) Cuando, siendo precisa licencia o autorización de otra Administración Pública, no se obtuviere en el plazo de seis meses.

b) Cuando las obras no se comenzaren en el plazo de ocho meses.

c) Cuando la obra no hubiere sido ejecutada en el plazo que figure en la propia autorización, y, en su defecto, en el plazo de un año.

2. El cómputo de los plazos fijados en los apartados anteriores se hará a partir del día siguiente al que fuere notificada la autorización.

3. La caducidad se producirá de forma automática por el transcurso de los plazos previstos en el párrafo 1.

4. A instancia del interesado, presentada antes de producirse la caducidad, podrá ser concedida prórroga de la autorización por plazo no superior a la mitad del fijado inicialmente.

## 44. artikulua. Baimena iraungitzea

1. Honako kasu hauetan iraungiko dira baimenak:

a) Herri administrazioaren lizentzia edo baimena beharrezko bada, baina sei hilabeteko epean lortzen ez bada.

b) Lanak ez badira zortzi hilabeteko epean hasten.

c) Lanak ez badira egiten baimenean ezarritako epean, eta, eperik ezarri ez denean, berriz, hilabeteko epean amaitu ez badira.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako epeak baimena jakinarazi eta biharamunean hasiko dira.

3. Iraungipena automatikoki gertatuko da, 1. paragrafoko epeak gainditzen badira.

4. Interesdunak baimena luzatzeko eskabidea aurkezten badu iraungipena gertatu aurretik, baimena luzatu ahal izango da. Dena dela, luzapena ezin izango da, inoiz ere, hasieran ezarritako epearen erdia baino luzeagoa izan.

## Artículo 45. Permisos temporales

1. Además de las autorizaciones reguladas en esta Sección, podrán ser concedidos permisos temporales para la realización de actividades o usos no permanentes previa acreditación de su conveniencia, siempre que no supongan limitaciones a la actuación administrativa ni disminuyan la seguridad o capacidad de la carretera.

2. La solicitud de tales permisos deberá reunir los requisitos documentales establecidos para las autorizaciones en el 42.

3. El plazo de los permisos temporales será fijado en la propia resolución, con una duración máxima de seis meses. Al término del plazo se extinguirán sin necesidad de requerimiento o notificación personal, procediendo el desalojo, si fuere preciso, a través de los medios de ejecución forzosa previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo.

## 45. artikulua. Aldi baterako baimenak

1. Atal honetan araututako baimenez gainera, aldi baterako baimenak ere eman ahal izango dira, iraunkorrak ez diren jarduerak edo erabilerak egiteko. Horretarako, baimena lortu aurretik, jarduera edo erabileron komenigarritasuna egiaztatu behar da, eta jarduera eta erabilerek ezin izango dute murriztu administrazioaren jarduera, ez eta errepidearen segurtasuna edo ahalmena ere.

2. Baimen horiek eskatzeko, 42. artikuluan baimenetarako ezarritako dokumentazio-baldintzak bete behar dira.

3. Aldi baterako baimenetarako epea ebazpenean bertan ezarriko da, eta gehienez ere sei hilabetekoa izango da. Epea amaitzen denean, baimenok iraungiko dira, eta ez da beharrezkoa izango errekerimendu edo jakinarazpen pertsonalik egitea; beharrezko bada, ondasuna utzaraziko da, administrazio-prozeduraren legean egintzak nahitaez betearazteko ezarritako bideak erabilita.

## Artículo 46. Resolución

## 46. artikulua. Ebazpena

1. Las peticiones de autorizaciones o permisos temporales serán presentadas en el Departamento de Obras Públicas acompañadas de la documentación regulada en los artículos anteriores.

2. El Departamento deberá notificar la resolución adoptada en el plazo de tres meses, contados a partir de la entrada de la solicitud.

3. Transcurrido dicho plazo, se entenderá concedida por silencio la autorización o permiso, siempre que las obras o usos no incidan en la zona de dominio público o de servidumbre y, además, cumplan con el planeamiento de carreteras y con el planeamiento urbanístico vigente.

4. El Departamento de Obras Públicas podrá suspender el plazo previsto para resolver la solicitud en los términos previstos en la normativa reguladora del procedimiento administrativo.

5. En ningún caso se adquirirán por silencio facultades en contra de lo establecido en la presente Norma Foral, en los Planes Territoriales, Planes y Proyectos de Carreteras, o instrumentos de Ordenación Urbana o en la normativa reguladora del procedimiento administrativo.

6. En la concesión de autorizaciones por parte del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia que tenga por objeto la realización de actividades de urbanización o edificación deberán tenerse en cuenta, entre otras, las determinaciones de las disposiciones legales e instrumentos de desarrollo que en el ámbito de las competencias atribuidas a la Administración Foral se refieran a la protección contra la contaminación acústica.

### Artículo 47. Paralizaciones

1. Cuando una obra o uso se realizare sin previa autorización o permiso temporal, o con incumplimiento de los que hubieren sido concedidos, el Departamento de Obras Públicas queda facultado para disponer su paralización o cese, y lo comunicará a los interesados concediéndoles el plazo de dos meses para que puedan presentar solicitud de legalización junto con la documentación regulada en el artículo 42.

2. La paralización suspenderá los trabajos de construcción, pero el interesado deberá realizar las obras necesarias para mantener las debidas condiciones de seguridad.

3. Si no fuere presentado el proyecto en el expresado plazo, dentro del mes sucesivo se dispondrá la demolición y desalojo impidiéndose definitivamente los usos establecidos; todo ello a costa del interesado. De igual modo se procederá en el supuesto de que no fuere procedente la legalización solicitada. En la resolución que se adopte se fijará el plazo para la ejecución con apercibimiento de que en caso de incumplimiento se adoptarán los medios de ejecución forzosa previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo.

4. Las facultades para restablecer la legalidad infringida regulada en el presente artículo podrán ser ejercidas durante la realización de las obras o los usos y durante el

1. Aldi baterako baimenak lortzeko eskabideak Herri Lan Sailean aurkeztuko dira, aurreko artikuluetan araututako dokumentazioarekin batera.

2. Sailak hiru hilabeteko epea izango du ebazpena jakinarazteko, eskabidea sailera sartzen den egunetik hasita.

3. Epe hori gainditu gero, baimena isiltasunaren bidez emandakotzat joko da, betiere lan edo erabilerek eraginik ez badute jabari publikoko eremuan edo zortasun-eremuan eta, gainera, errepideei buruzko plangintzan eta indarreko hirigintza-plangintzan ezarritakoa betetzen badute.

4. Herri Lan Sailak eskabidea ebazteko epea eten ahal izango du, administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

5. Ezin izango da, inola ere, isiltasunaren bidezko ahalmenik lortu foru arau honetan, ahalmen hori lurralde-planetan, errepideen plan eta proiektuetan, hiri-antolamenduko tresnetan edo administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoaren kontra badago.

6. Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak hirigintza edo eraikuntza arloko jarduerak egiteko baimena emateko, honako hauek hartu behar ditu kontuan, besteak beste: kutsadura akustikoaren kontrako babesari buruz foru administrazioari dagozkion eskumenak direla-eta emandako lege-xedapenen eta garapen-tresnen zehaztapenak.

### 47. artikulua. Lanak geldiaraztea

1. Lan edo erabilera bat egiten bada edo hori egiteko aurretik lortu beharreko aldi baterako baimena izan gabe edo emandako baimenean ezarritakoa bete gabe, orduan Herri Lan Sailak ahalmena izango du lana edo erabilera geldiarazi edo eteteko, eta horren berri emango die interesdunei. Horrez gainera, interesdunei bi hilabeteko epea emango die legeztapen-eskabidea eta 42. artikuluan araututako dokumentazioa aurkezteko.

2. Geldiarazpenaren ondorioz, eraikuntza-lanak etenda geratuko dira; baina interesdunak segurtasun-baldintzak mantentzeko beharrezko diren lanak egin beharko ditu.

3. Proiektua ez bada adierazi den epean aurkezten, epearen hurrengo hilabetean aginduko dira eraisketa eta utzarazpena, eta ezarritako erabilerak behin betiko debekatuko dira. Aurreko guztia interesdunaren kontura izango da.Berdin jokatuko da eskatutako legeztapena onartzen ez bada. Ematen den ebazpenean, lanak edo erabilerak egiteko epea ezarriko da, eta ohartaraziko da epea betetzen ez bada administrazio-prozeduraren legean egintzak nahitaez betearazteko ezarritako bideak erabiliko direla.

4. Artikulu honetan araututako lege-urratzea zuzendu ahal izango da bai lanak edo erabilerak egiten direnean, bai lanak amaitu ondorengo lau urteko epean.

plazo de los cuatro años sucesivos a su terminación.

5. La adopción de los oportunos acuerdos se hará sin perjuicio de las sanciones y de las responsabilidades de todo orden que resulten procedentes.

SECCION 4ª
**INFRACCIONES Y SANCIONES**

## Artículo 48. Infracciones

1. Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes cometan cualquiera de las infracciones tipificadas en los apartados siguientes de este artículo.

2. Son infracciones leves:

a) Realizar obras, instalaciones o actuaciones no permitidas en las zonas de dominio público, de servidumbre o de afección de la carretera, llevadas a cabo sin las autorizaciones o licencias requeridas; o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando puedan ser objeto de legalización posterior.

b) Colocar, verter, arrojar o abandonar dentro de la zona de dominio público, objetos o materiales de cualquier naturaleza, siempre que no se afecte a la seguridad vial, en cuyo caso se trataría de una infracción grave.

c) Realizar en la explanación o en la zona de dominio público, plantaciones o cambios de uso no permitidos o sin la pertinente autorización, o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada.

d) Provocar de forma injustificada una interrupción total o parcial del tráfico.

e) No mantener las 24 horas del día las instalaciones adecuadas para permitir el pago del peaje.

f) No abonar el peaje correspondiente a la utilización de la infraestructura.

3. Son infracciones graves:

a) Realizar obras, instalaciones o actuaciones no permitidas en las zonas de dominio público, de servidumbre o de afección de la carretera, llevada a cabo sin las autorizaciones o licencias requeridas, o incumplir algunas de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando no fuera posible su legalización posterior.

b) Deteriorar cualquier elemento de la carretera directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación, o modificar intencionadamente sus características o situación.

c) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación de la carretera o de los elementos funcionales de la misma.

5. Erabakiak hartzen badira ere, dagozkion zehapenak eta erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

4. ATALA
**ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

## 48. artikulua. Arau-hausteak

1. Administrazio-erantzukizuna izango dute artikulu honetako paragrafoetan tipifikatutako arau-hausteetako edozein egiten dutenek.

2. Honako hauek dira arau-hauste arinak:

a) Baimendu gabeko lanak, instalazioak edo jarduerak egitea errepidearen jabari publikoko eremuan, zortasun-eremuan edo eraginpeko eremuan, horretarako beharrezko baimenak edo lizentziak izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetako bat ez betetzea, baldin eta lan, instalazio edo jarduera horiek gerora legeztatzeko modukoak badira.

b) Jabari publikoko eremuan edozein objektu edo material jarri, isuri, bota edo uztea, horrek bidesegurtasunean eraginik ez badu; eraginik badu, aldiz,, arau-hauste larria izango da.

c) Laugunean edo jabari publikoko eremuan zuhaitzak landatzea edo erabilera aldatzea horretarako baimenik edo onarpenik gabe edo emandako baimenean ezarritako baldintzak bete gabe.

d) Arrazoirik gabe zirkulazioa erabat edo neurri batean etenaraztea.

e) Eguneko 24 orduetan funtzionamenduan ez edukitzea bidesaria ordaintzeko instalazioak.

f) Azpiegitura erabiltzearen ondoriozko bidesaria ez ordaintzea.

3. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

a) Baimendu gabeko lanak, instalazioak edo jarduerak egitea errepidearen jabari publikoko eremuan, zortasun-eremuan edo eraginpeko eremuan, horretarako beharrezko baimenak edo lizentziak izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetako bat ez betetzea, baldin eta lan, instalazio edo jarduera horiek gerora ezin badira legeztatu.

b) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzenean lotutako edozein elementu hondatzea, edo nahita aldatzea elementu horren ezaugarriak edo kokalekua.

c) Errepideko edozein lan, instalazio edo elementu funtzional apurtu, hondatu edo aldatzea.

d) Colocar, verter, arrojar, abandonar o, por incumplimiento de la obligación de garantizar una adecuada colocación de cargas, permitir la caída de materiales u objetos de cualquier naturaleza que afecten a la plataforma de la carretera.

e) Realizar en la explanación o en la zona de dominio público cruces aéreos o subterráneos no permitidos o sin la pertinente autorización, o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada.

f) Colocar carteles informativos en las zonas de dominio público, servidumbre y afección sin autorización del Departamento de Obras Públicas.

g) Actuar con negligencia en la conservación de los elementos integrantes de la carretera.

h) Incurrir en deficiencias en la señalización y balizamiento de la carretera.

i) Incurrir en incumplimiento en los plazos consignados en el pliego de cláusulas generales de la concesión.

j) Obstuir con actos u omisiones a la Administración competente en el ejercicio de sus funciones de explotación y policía de carreteras.

k) Las infracciones calificadas como leves cuando exista reincidencia.

4. Son infracciones muy graves:

a) Realizar obras, instalaciones o actuaciones no permitidas entre la arista exterior de la explanación y la línea de edificación, llevadas a cabo sin las autorizaciones o licencias requeridas, o incumplir algunas de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas.

b) Sustraer, deteriorar o destruir cualquier elemento de la carretera directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación; o modificar intencionadamente sus características o situación, cuando se impida que el elemento de que se trate siga prestando su función.

c) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación de la carretera o de los elementos funcionales de la misma cuando las actuaciones afecten a la calzada o a los arcenes.

d) Establecer en la zona de afección instalaciones de cualquier naturaleza o realizar alguna actividad que resulten peligrosas, incómodas o insalubres para los usuarios de la carretera sin adoptar las medidas pertinentes para evitarlo.

e) Dañar o deteriorar la carretera circulando con pesos o cargas que excedan de los límites autorizados.

f) Establecer cualquier clase de publicidad visible desde la zona de dominio público de la carretera.

d) Errepidearen plataforman edozein material edo objektu jarri, isuri, bota edo uztea edo, kargak egoki jartzeko betebeharra ez betetzearen ondorioz, edozein material edo objektu erortzen uztea.

e) Laugunean edo jabari publikoko eremuan aireko edo lurpeko gurutzaketak egitea, horretarako baimenik edo onarpenik gabe edo emandako baimenean ezarritako baldintzak bete gabe.

f) Herri Lan Sailaren baimenik gabe, informaziokartelak jartzea jabari publikoko eremuan, zortasun-eremuan eta eraginpeko eremuan.

g) Errepidea osatzen duten elementuen kontserbazioan zabarkeriaz jokatzea.

h) Errepideko seinaleak eta balizak jartzean akatsak egitea.

i) Emakidaren klausula orokorren pleguan ezarritako epeak ez betetzea.

j) Errepidea ustiatu eta zaintzeko eginkizunak erabil ditzala eragoztea administrazio eskudunari, egintzen zein ez-egiteen bidez.

k) Arintzat jotako arau-hausteak behin eta berriz egitea.

4. Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Baimendu gabeko lanak, instalazioak edo jarduerak egitea lauguneko kanpoko ertzaren eta eraikuntzalerroaren artean, horretarako beharrezko baimenak edo lizentziak izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetako bat ez betetzea.

b) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzenean lotutako edozein elementu ostu, hondatu edo apurtzea; edo nahita aldatzea elementu horren ezaugarriak edo kokalekua, baldin eta elementuak handik aurrera ezin badu bere funtzioa bete.

c) Errepideko edozein lan, instalazio edo elementu funtzional apurtu, hondatu edo aldatzea, jarduera horiek galtzadan edo bazterbideetan eragina badute.

d) Eraginpeko eremuan erabiltzaileentzat arriskutsu, gogaikarri edo osasungaitza den edozein instalazio jartzea edo jarduera egitea, hori ekiditeko neurririk hartu gabe.

e) Baimendutako mugak gainditzen dituzten pisu edo kargak eramatearen ondorioz errepidea kaltetu edo hondatzea.

f) Errepideko jabari publikoko eremutik ikus daitekeen edozein publizitate mota jartzea.

g) Cometer alguna de las calificadas como graves cuando se aprecie reincidencia.

## Artículo 49. Procedimiento sancionador

1. El procedimiento para sancionar las infracciones a los preceptos de esta Norma Foral se iniciará por resolución del Órgano competente de la Diputación Foral, de oficio o como consecuencia de denuncia formulada por particulares.

2. El procedimiento administrativo sancionador será el establecido en las disposiciones que regulen este procedimiento especial.

3. La actividad inspectora que fiscaliza el cumplimiento de las prescripciones de la presente Norma Foral se efectuará por el Departamento de Obras Públicas, presumiéndose la certeza de los hechos descritos en el acta de inspección, salvo que de la instrucción del expediente incoado resulte concluyentemente lo contrario.

4. En los supuestos en que los actos cometidos contra la carretera o sus elementos pudieran ser constitutivos de delito o falta, el Departamento de Obras Públicas pasará el tanto de culpa a la autoridad judicial competente y se abstendrá de proseguir el procedimiento sancionador mientas ésta no se haya pronunciado. La sanción de la autoridad judicial excluirá la imposición de multa administrativa. De no haberse estimado la existencia de delito o falta, la Administración podrá proseguir el expediente sancionador con base en los hechos que los Tribunales hayan considerado probados.

## Artículo 50. Sanciones

1. Las infracciones a que se refiere el artículo 48 serán sancionadas atendiendo a los daños y perjuicios producidos, en su caso, al riesgo creado y a la intencionalidad del causante, con las siguientes multas:

- Infracciones leves, multa de 200 a. 4.000 euros.
- Infracciones graves, multa de 4.001 a 10.000 euros.
- Infracciones muy graves, multa de 10.001 a 200.000 euros.

Cuando el beneficio económico obtenido por la comisión de la infracción fuera superior a la sanción que hubiera de imponerse según dichas cuantías, la sanción deberá incrementarse hasta igualar la cuantía de aquél.

La Diputación podrá actualizar la cuantía de las multas tomando como referencia el IPC del Territorio Histórico de Bizkaia del año inmediatamente anterior a la actualización.

2. Con independencia de las multas previstas en el apartado anterior, los órganos sancionadores, una vez transcurridos los plazos señalados en el requerimiento correspondiente, podrán imponer multas coercitivas conforme a

g) Larritzat jotako arau-hausteak behin eta berriz egitea.

## 49. artikulua. Zehapen-prozedura

1. Foru Aldundiko organo eskudunaren ebazpen bidez hasiko da foru arau honetan ezarritakoaren kontrako arau-hausteak zehatzeko prozedura, dela administrazioaren kabuz, dela partikularrek egindako salaketa baten ondorioz.

2. Zehatzeko administrazio-prozedura prozedura berezi hori arautzen duten xedapenetan ezarritakoa izango da.

3. Herri Lan Saila arduratuko da foru arau honetan ezarritako preskripzioak betetzen direla ikuskatzeaz, eta ikuskapen-aktan azaldutako egitateak benetakotzat joko dira, hasitako espedientearen instrukzioan kontrakoa ondorioztatzen ez bada.

4. Errepidearen edo haren elementuen kontra egindako egintzak delitu edo faltatzat hartu ahal badira, Herri Lan Sailak agintaritza judizial eskudunari igorriko dio erruduntasun-testigantza, eta zehapen-prozedurak ez du aurrera egingo harik eta agintaritza judizial horrek irizpena eman arte. Agintaritza judizialak zehapena jartzen badu, ez da isun administratiborik jarriko. Ulertzen bada ez dela delitu edo faltarik egon, administrazioak aurrera eraman dezake zehapen-espedientea, epaitegietan frogatutzat jotako egitateak oinarri hartuta.

## 50. artikulua. Zehapenak

1. Eragindako kalte-galeren arabera, sortutako arriskuaren arabera (halakorik sortuz gero) eta egilearen asmoaren arabera ezarriko dira 48. artikuluan jasotako arau-hausteen zehapenak; horretarako, honako isun hauek jarriko dira:

- Arau-hauste arinetarako, 200 euro eta 4.000 euro arteko isuna.
- Arau-hauste larrietarako, 4.001 euro eta 10.000 euro arteko isuna.
- Arau-hauste oso larrietarako, 10.001 euro eta 200.000 euro arteko isuna.

Arau-haustea egitearen ondorioz lortu den onura ekonomikoa goiko zenbatekoen arabera ezarri beharreko isuna baino handiagoa bada, isuna areagotu egin beharko da, onura horren zenbatekoa berdintzeraino.

Aldundiak isunen zenbatekoa eguneratu ahal izango du, eguneratzearen aurreko urtean Bizkaiko Lurralde Historikoak izandako KPIa erreferentziatzat hartuta.

2. Aurreko paragrafoan zehaztutako isunez gainera, zehapen-organoek, dagokion errekerimenduan ezarritako epeak igaro ondoren, hertsapen-isunak jarri ahal izango dituzte, administrazio-prozeduraren legean ezarritakoaren

lo establecido en la Ley de Procedimiento Administrativo.

La cuantía de cada una de dichas multas no superará el 20 por 100 de la multa fijada para la infracción cometida.

3. El límite máximo de las penalidades a imponer al concesionario no podrá exceder el 10 por 100 del presupuesto total de la obra durante su fase de construcción. Si la concesión estuviera en fase de explotación, el límite máximo de las penalidades anuales no podrá exceder el 20 por 100 de los ingresos obtenidos por la explotación de la concesión durante el año anterior.

4. Sin perjuicio de las penalidades y sanciones cuya imposición al concesionario se prevea en el pliego de conformidad con el artículo 25, la Diputación Foral de Bizkaia podrá también imponer al concesionario multas coercitivas cuando persista en el incumplimiento de sus obligaciones, siempre que hubiera sido requerido previamente y no las hubiera cumplido en el plazo fijado. El importe diario de la multa será de 6.000 euros.

### Artículo 51. Competencia

1. La imposición de sanciones por infracciones leves y graves corresponderá al Diputado/a de Obras Públicas mediante Orden Foral, y la de las muy graves, a la Diputación Foral, a propuesta del Diputado/a de Obras Públicas.

2. La imposición de la sanción que corresponda será independiente de la obligación de restablecer la legalidad infringida y de la de indemnizar los daños y perjuicios causados, cuyo importe será fijado por el Departamento de Obras Públicas previa tramitación de expediente, con audiencia del interesado por plazo de quince días.

### Artículo 52. Prescripción

El plazo de prescripción de las infracciones será de cuatro años para las graves y muy graves, y de un año para las leves.

### Artículo 53. Indemnización de daños y perjuicios

1. Incurrirán en responsabilidad quienes de cualquier modo realicen actos que causen daños en la carretera o en cualquiera de sus elementos mediante expediente administrativo instruido al efecto para determinar y exigir la reparación, previa audiencia contemplada en el artículo 51.2 de la presente Norma Foral si el asunto no se hubiese depurado en un expediente sancionador.

2. Cuando los hechos a consecuencia de los cuales se hubieran derivado los daños, pudieran ser constitutivos de delito o falta, se pasará el tanto de culpa a los tribunales.

### Artículo 54. Condiciones de las propiedades en las zonas de protección

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en la normativa urbanística en vigor, los propietarios de terrenos, construcciones,

arabera.

Isun horietako bakoitzak ezin izango du egindako arau-haustearen ondorioz ezarritako isunaren 100eko 20 gainditu.

3. Emakidadunari ezarri beharreko zigorren gehieneko mugak ezin izango du aurrekontu osoaren 100eko 10 gainditu, lana eraikuntza-fasean badago. Emakida ustiapen-fasean badago, berriz, urteko zigorren gehieneko mugak ezin izango du ehuneko hau gainditu: aurreko urtean emakida ustiatzearen ondorioz lortutako sarreren 100eko 20.

4. Bestalde, 25. artikuluarekin bat etorriz pleguan emakidadunarentzat aurrez ikusten diren zigor eta zehapenak gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak hertsapen-isunak ezarri ahal izango dizkio emakidadunari betebeharrak ez betetzen jarraitzen badu, betiere aurretik haiek betetzeko errekerimendua egin bazaio, baina ezarritako epean bete ez baditu. Isunaren eguneko zenbatekoa 6.000 euro izango da.

### 51. artikulua. Eskumena

1. Herri Lanen diputatuari dagokio arau-hauste arinen edo larrien ondoriozko zehapenak ezartzea, foru arau bidez; oso larrien ondoriozkoak ezartzea, berriz, Foru Aldundiari dagokio, Herri Lanen diputatuak proposamena eginda.

2. Dagokion zehapena ezarrita ere, araua hautsi aurreko egoerara itzuli behar da eta eragindako kalteak zein galerak ordaindu behar dira. Herri Lan Sailak ezarriko du kalte-ordainen zenbatekoa, espedientea izapidetu ondoren, eta hamabost eguneko epea emango da, interesdunari entzuteko.

### 52. artikulua. Preskripzioa

Arau-hausteen preskripzio-epea lau urte izango da arau-hauste larri eta oso larrien kasuan; arau-hauste arinen kasuan, berriz, urtebetekoa.

### 53. artikulua. Kalteak eta galerak ordaintzea

1. Erantzukizuna izango dute errepideari edo haren edozein elementuri kalteak eragiten dizkioten egintzak egiten dituztenek. Erantzuleei administrazio-espedientea instruituko zaie, konponketa zehaztu eta eskatzeko. Aurretik, baina, foru arau honetako 51.2 artikuluan jasotako entzunaldirako aukera emango zaie, baldin eta gaia ez bada zehapen-espediente baten bidez ebatzi.

2. Kalteak sortu dituzten egitateak delitu edo falta bat sortzeko arrazoi izan ahal badira, erruduntasun-testigantza igorriko zaie epaitegiei.

### 54. artikulua. Babes-eremuetako jabetzen baldintzak

1. Indarreko hirigintza-araudian xedatutakoa gorabehera, errepidean edo foru arau honek adierazitako babes-

instalaciones, plantaciones y cualesquiera otros elementos que incidan directa o indirectamente sobre la carretera o alguna de las zonas de protección señaladas en la presente Norma Foral, deberán mantenerlos en las debidas condiciones de seguridad.

eremuetan zuzeneko edo zeharkako eragina duten lurren, eraikinen, instalazioen, landatutako sailen eta beste edozein elementuren jabeek behar bezalako segurtasun-baldintzetan mantendu behar dituzte elementu horiek.

Cuando alguna de las instalaciones, construcciones o plantaciones señaladas en el párrafo anterior incumpla las condiciones en el mismo exigidas, el Departamento de Obras Públicas requerirá a su propietario para que proceda a su cumplimiento, con el apercibimiento de que en caso contrario se realizará por ejecución subsidiaria y a su cargo y coste del mismo o establecerá multas coercitivas según lo dispuesto en el artículo 50.2.

Aurreko lerrokadan adierazitako instalazioren, eraikinen edo landatutako sailen batek ez baditu betetzen lerrokada horretan ezarritako baldintzak, Herri Lan Sailak errekerimendua egingo dio jabeari, bete ditzan, eta ohartaraziko dio bestela egiten badu betearazpen subsidiarioa ezarriko zaiola eta haren kontura izango dela dagokion kostua, edo, 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hertsapen-isuna ezarriko zaiola.

2. En el caso de que las instalaciones o construcciones a que se refieren los dos apartados anteriores se hallen en situación de ruina, de conformidad con la normativa urbanística, el órgano foral competente dará cuenta a la autoridad urbanística actuante a los efectos oportunos, todo ello sin perjuicio de la exigencia o, en su caso, rápida adopción de las medidas que estime oportunas en defensa de la carretera.

2. Aurreko lerrokada bietan adierazitako instalazio edo eraikin horiek erortzeko zorian badaude, foru organo eskudunak, hirigintza-araudiaren arabera, hirigintzako agintaritzari jakinaraziko dio, dagozkion ondorioetarako; hala ere, errepidea babesteko egokitzat jotako neurriak eskatu edo, hala behar denean, hartu ahal izango ditu.

## CAPITULO IV
## TRAMOS URBANOS Y TRAVESIAS

## IV. KAPITULUA
## HIRI BARRUKO BIDE-TARTEAK ETA ZEHARBIDEAK

### Artículo 55. Generalidades

Los tramos de carretera foral que discurran por suelo urbano se regirán por las disposiciones del presente capítulo y por las demás contenidas en esta Norma Foral en lo que resulten aplicables.

### 55. artikulua. Xedapen orokorra

Hiriko lurzoruan zehar igarotzen diren foru errepideen tarteek kapitulu honetako xedapenak zein foru arau honetan jaso eta aplikatu behar zaizkien gainerakoak bete behar dituzte.

### Artículo 56. Definición

Se consideran tramos urbanos aquéllos tramos de carretera cuyo suelo en ambas márgenes esté clasificado como urbano por el correspondiente instrumento de planeamiento urbanístico.

Constituye travesía la parte de tramo urbano en la que existan edificaciones consolidadas al menos en las dos terceras partes de su longitud y un entramado de calles en una de las márgenes.

### 56. artikulua. Definizioa

Honako hauek dira errepideen hiri barruko bide-tarteak: dagokien hirigintza-plangintzak egindako sailkapenaren arabera, alde bietan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua dutenak.

Zeharbidea hiri barruko bide-tartearen zati bat da, luzeraren bi herenetan gutxienez eraikin finkoak dituena eta aldeetako batean kale sare bat duena.

### Artículo 57. Delimitación

El Departamento de Obras Públicas, por propia iniciativa o a instancia del Ayuntamiento interesado, podrá iniciar y tramitar un expediente de delimitación de los tramos urbanos, estableciendo la parte de los mismos que debe tener la consideración de travesía.

En el expediente de delimitación se determinará la línea de edificación a lo largo de todo el tramo urbano, incluida la travesía. Dicha línea podrá no ser uniforme y fijarse a distancia inferior a la de fuera del tramo urbano.

El expediente de delimitación de tramos urbanos deberá ser aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia, previa audiencia a las Corporaciones interesadas, informe

### 57. artikulua. Mugatzea

Herri Lan Saila, bere kabuz edo udal interesdun batek eskatuta, hiri barruko bide-tarteak mugatzeko espediente bat hasi eta izapidetu ahal izango du, eta ezarri ahal izango du zein zati joko den zeharbidetzat.

Mugatzeko espedientean, eraikuntza-lerroa mugatuko da hiri barruko bide-tarte osoan zehar, bai eta zeharbidean ere. Baliteke lerro hori uniformea ez izatea, eta hiri barruko bide-tartetik kanpoko distantzian baino distantzia txikiagoan ezartzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu behar du hiri barruko bide-tarteak mugatzeko espedientea, korporazio interesdunei entzun, Hirigintzako Batzordeak txostena eman eta

de la Comisión de Urbanismo y propuesta conjunta de los Departamentos Forales de Obras Públicas y Urbanismo.

Aldundiko Herri Lan Sailak eta Garraio eta Hirigintza Sailak proposamen bateratua egin ondoren.

### Artículo 58. Autorización

### 58. artikulua. Baimena

1. En la zona de dominio público de los tramos urbanos corresponde a los Ayuntamientos el otorgamiento de autorizaciones para dar acceso a los fundos colindantes o realizar obras o actividades, previo informe vinculante del Departamento de Obras Públicas, que se fundamentará en las disposiciones de la presente Norma Foral.

1. Hiri barruko bide-tarteen jabari publikoko eremuan, udalei dagokie finka mugakideetarako sarbideak edo lanak zein jarduerak egiteko baimenak ematea. Horretarako, Herri Lan Sailaren txosten loteslea behar da aurretik; txosten hori foru arau honetako xedapenetan oinarrituko da.

2. En las zonas de servidumbre y afección de los tramos urbanos, excluidas las travesías, las autorizaciones de usos y obras serán otorgadas por los Ayuntamientos, previo informe del Departamento de Obras Públicas.

2. Hiri barruko bide-tarteetako zortasun-eremuan eta eraginpeko eremuan (zeharbideak alde batera utzita), udalek emango dituzte erabilera eta lanetarako baimenak, Herri Lan Sailak txostena eman ondoren.

3. En las travesías de carreteras forales corresponde a los Ayuntamientos el otorgamiento de toda clase de licencias y autorizaciones sobre los terrenos y edificaciones.

En la zona de dominio público de las travesías, las licencias y autorizaciones requerirán el informe previo vinculante del Departamento de Obras Públicas.

A estos efectos, se considerará zona de dominio público exclusivamente la ocupada por la carretera y sus elementos funcionales.

En el supuesto de que existiesen aceras, el límite de la zona de dominio público será el borde exterior de la acera más cercana a la calzada o las vías de servicio.

Sin perjuicio de la titularidad de las citadas aceras, la Administración de carreteras, podrá hacer uso del espacio ocupado por estas para el cumplimiento de las competencias que legalmente tiene atribuidas.

En la zona de servidumbre y afección de las travesías, será el ayuntamiento el competente para otorgar las licencias y autorizaciones sobre los terrenos y edificaciones.

3. Foru errepideetako zeharbideetan, udalei dagokie lur eta eraikinen gaineko era guztietako lizentziak eta baimenak ematea.

Zeharbideetako jabari publikoko eremuan, lizentzia eta baimenek Herri Lan Sailaren txosten loteslea behar dute aurretik.

Horretarako, errepideak eta haren elementu funtzionalek okupatutakoa bakarrik hartuko da jabari publikoko eremutzat.

Espaloiak dauden tokian, honako hau izango da jabari publikoko eremuaren muga: galtzadatik edo zerbitzubideetatik hurbilen dagoen espaloiaren kanpoko ertza.

Espaloi horien titulartasuna gorabehera, errepideen administrazioak espaloi horiek okupatzen duten espazioa erabili ahal izango du, legez esleituta dituen eskumenak betetzeko.

Zeharbideetako zortasun-eremuan eta eraginpeko eremuan, udalak izango du lur eta eraikinen gaineko lizentziak eta baimenak emateko eskumena.

4. Los Ayuntamientos deberán notificar al Departamento de Obras Públicas todos los acuerdos adoptados sobre otorgamiento de autorizaciones que afecten a la vía pública y a sus zonas de protección.

4. Udalek Herri Lan Sailari jakinarazi behar dizkiote bide publikoan eta haren babes-eremuetan eragina duten baimenak emateko hartutako erabaki guztiak.

5. Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia se aprobará el inventario de las travesías existentes en el Territorio Histórico de Bizkaia.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu baten bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zeharbideen inbentarioa onartuko da.

### Artículo 59. Entrega

### 59. artikulua. Bide-tarteak udalei ematea

1. La finalización de la construcción de variantes de población o duplicación de calzada, previstas en el artículo 14 de la presente Norma Foral pertenecientes a la Red Funcional de Carreteras, conllevará la asunción, por parte del Ayuntamiento/s afectado/s, de la titularidad de aquellos tramos que hayan sido sustituidos por la nueva infraestructura y consecuentemente la baja de los mismos en el Catálogo de la Red de Carreteras Forales de Bizkaia.

1. Errepideen sare funtzionaleko herriko saihesbideak eraikitzeko edo galtzada bikoizteko lanak amaitzen direnean (bide horiek foru arau honetako 14. artikuluan aurrez ikusita daude), ukitutako udalek beren gain hartuko dute azpiegitura berriak ordeztutako tarteen titulartasuna, eta, ondorioz, Bizkaiko foru errepide-sarearen katalogoan baja emango zaie tarteoi.

2. Además, en aquellas carreteras comarcales y básicas con una intensidad media diaria inferior a 10.000 vehícu-

2. Horrez gainera, egunean 10.000 ibilgailutik beherako batez besteko intentsitatea duten eskualde-errepideetan

los al día, podrá realizarse dicha entrega en el momento que sea solicitado por el municipio, siempre y cuando se encuentre recogido en el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia, y en la herramienta de Planificación Urbanística municipal, aprobada de manera definitiva.

eta oinarrizko errepideetan, udalak berak eskatzen duenean eman ahal izango zaizkio tarteak udalari, betiere hori jasota badago Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialean eta behin betiko onartuta dagoen udal hirigintza-plangintzako tresnan.

3. En aquellos tramos no incluidos en la Red Funcional y que a través del desarrollo urbanístico de manera progresiva se vayan convirtiendo en tramos urbanos, se procederá a su entrega automática cuando dichos tramos tengan una longitud superior a 500 metros, en las carreteras tipo BI-3XXX, siempre y cuando el referido tramo se encuentre segregado del siguiente en al menos 1.000 metros, en cuyo defecto la entrega será de todo el conjunto de núcleos urbanos, incluido el tramo ínter núcleos.

En cambio, en carreteras de la red no funcional del tipo BI-4XXX, en fondo de saco, se entregará el tramo comprendido entre la zona urbana y el final de la carretera, sea cual fuera su longitud.

En estos supuestos correspondientes a la Red no Funcional, la entrega se producirá tras ser solicitado por el municipio correspondiente.

4. Al objeto de que los tramos cedidos por alguno de los supuestos anteriores puedan, no sólo regenerarse, sino reurbanizarse con los equipamientos y servicios propios de un espacio urbano y de esta manera se puedan integrar en la estructura equipamental municipal, la Diputación, en función de las disponibilidades presupuestarias existentes en cada ejercicio presupuestario, podrá abonar una contraprestación económica máxima e irrebasable proporcional a los siguientes conceptos:

A) Escenario objeto de la cesión, en función de que se trate de una variante urbana o duplicación de la red funcional o que sea una cesión en la red no funcional.

B) Tipo de vía, en función de que se trate de una infraestructura con una o varias calzadas.

C) Tamaño poblacional del municipio.

D) Longitud cedida.

La contraprestación establecida tendrá el carácter de base para la actuación municipal, pudiendo ir ésta más allá con cargo a sus propios recursos, tanto en el ámbito como en el alcance.

### Artículo 60. Convenio

La Diputación y las Corporaciones de los municipios respectivos podrán convenir lo que estimen procedente en orden a la mejor conservación y funcionamiento posterior de los tramos cedidos respetando siempre como condiciones mínimas las contenidas en el artículo 59.

### Artículo 61. Utilización

La utilización de las carreteras en sus tramos urbanos se ajustará, además de lo dispuesto en la presente Norma Foral, al Código de Circulación y a la correspondiente

3. Sare funtzionalean sartuta ez dauden arren, hirigintza-garapenaren bidez pixkanaka-pixkanaka hiri barruko bidetarte bihurtu diren tarteak automatikoki emango dira, 500 metrotik gorakoak badira, BI-3XXX erako errepideetan badaude eta, betiere, tartea hurrengo tartetik gutxienez ere 1.000 metrora bereizita dagoenean. Hala gertatzen ez bada, hiriguneek osatzen duten multzo osoa emango da, guneen arteko tartea barne.

Funtzionala ez den sareko BI-4XXX erako errepide itsuetan, berriz, hiri barruko bide-tartetik eta errepide amaieraren arteko tartea emango da, tarte horren luzera edozein dela ere.

Funtzionala ez den sareari dagokion kasu horietan, dagokion udalak eskaera egin ondoren emango dira tarteak.

4. Aurreko kasuren baten ondorioz emandako tarteak berregiteaz gain, tarteok hirigune baten ekipamendu eta zerbitzuekin berriz urbanizatu ahal izateko eta hala udal ekipamenduen egituran sartu ahal izateko, Aldundiak, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean dauden aurrekontu-baliabideen arabera, gehieneko kontraprestazio bat eman ahal izango du, inola ere gainditu ezin dena, eta kontzeptu hauen araberakoa dena:

A) Ematea zein sare motatarako egiten den: sare funtzionaleko hiriko saihesbidea den edo bikoizketa den edo funtzionala ez den sarean emandakoa den.

B) Bide-mota: azpiegiturak galtzada bat edo batzuk dituen.

C) Udalerriaren biztanle kopurua.

D) Emandako luzera.

Ezarritako kontraprestazioa oinarrizkoa izango da udal jarduerarako; hala ere, jarduera handiagoa izan daiteke udalaren beraren baliabideen kontura, bai eremuan bai hedaduran.

### 60. artikulua. Hitzarmena

Aldundiak eta udal korporazioek hitzarmenak egin ahal izango dituzte emandako tarteen kontserbazio eta funtzionamendu hoberako, betiere 59. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak errespetatuta.

### 61. artikulua. Erabilera

Hiri barruko bide-tarteetako errepideen erabilerak, foru arau honetan ezarritakoaz gainera, Zirkulazio Kodea eta

normativa local.

Las prohibiciones y limitaciones de la circulación en los tramos urbanos de las carreteras forales se establecerán previo informe vinculante del Departamento de Obras Públicas.

toki-araudia bete behar ditu.

Foru errepideen hiri barruko bide-tarteetako zirkulazioaren debekuak eta murrizpenak ezartzeko beharrezkoa izango da aurretik Herri Lan Sailak txosten loteslea ematea.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

### Primera

1. Como anexo a la presente Norma Foral figura la jerarquización y denominación de las vías que integran la Red de Carreteras de Bizkaia.

2. El Departamento de Obras Públicas actualizará la relación de la Red de Carreteras, su jerarquización y denominación, así como la información sobre las características, situación, exigencias técnicas, estado, viabilidad y nivel de utilización de las mismas.

### Segunda

La Administración Foral, de acuerdo con lo establecido en la Ley Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, pondrá en vigor las normas técnicas y de señalización, desarrollándolas en aquellos aspectos que se consideren necesarios.

### Tercera

Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral podrán ser actualizadas las cuantías de las sanciones previstas en el artículo 50 de esta Norma, atendiendo a la variación que experimente el índice de precios al consumo del Territorio Histórico de Bizkaia, del año inmediatamente anterior a la actualización.

### Cuarta

La Diputación Foral de Bizkaia queda facultada para proceder a la retirada, sin indemnización, ni previo aviso, de cualquier clase de publicidad sita en la zona de dominio público de las carreteras, que afecte gravemente a la seguridad vial.

Así mismo, en el plazo de 6 meses desde la entrada en vigor de la presente Norma Foral, deberá ser retirada cualquier clase de publicidad visible desde la zona de dominio público de la carretera, a excepción de lo previsto en los tramos urbanos y travesías. Transcurrido ese plazo, la Diputación Foral de Bizkaia queda facultada para proceder a su retirada, previo requerimiento al anunciante o al titular del terreno en que las mismas estén ubicadas, y a su costa.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa

1. Foru arau honen eranskin gisa, Bizkaiko errepideen sarea osatzen duten bideen hierarkizazioa eta izenak jasotzen dira.

2. Herri Lan Sailak errepide-sareko errepideen zerrenda, hierarkizazioa eta izenak eguneratuko ditu, bai eta haien ezaugarriei, eskakizun teknikoei, egoerari, erabilgarritasunari eta erabilera-mailari buruzko informazioa ere.

### Bigarrena

Foru administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen legean ezarritakoarekin bat, indarrean jarriko ditu arau teknikoak eta seinaleak jartzeko arauak, eta beharrezko den alderdietan garatuko ditu.

### Hirugarrena

Foru Aldundiaren foru dekretu bidez eguneratu ahal izango dira arau honetako 50. artikuluan ezarritako zehapenen zenbatekoak, eguneratu aurreko urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko kontsumoko prezioen indizeak izandako aldaketaren arabera.

### Laugarrena

Bizkaiko Foru Aldundiak ahalmena izango du errepideen jabari publikoko eremuan dagoen edozein eratako publizitate kentzeko, baldin eta bide-segurtasunean eragin larria badu; kasu horretan, ez du kalterik ordainduko, eta ez du abisurik eman behar.

Horrez gainera, foru arau hau indarrean jartzen denetik 6 hilabeteko epean, errepidearen jabari publikoko eremutik ikusten den publizitate oro kendu behar da, salbuespen bakarra hiri barruko bide-tarteetarako eta zeharbideetarako ezarritakoa da. Epe hori igarota, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalmena izango du publizitatea kentzeko, iragarlearen edo publizitatea dagoen lurren titularrari errekerimendua eginda, eta haien kontura kenduko du.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

### Primera

En tanto no sea revisado el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia, se podrá viabilizar la ejecución de los Proyectos de Infraestructura viaria con un trámite de

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehenengoa

Bizkaiko Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala berrikusi arte, bide-azpiegituretarako proiektuak bideratzeko, informazio publikoaren izapidea 30 egun baliodunekoa

información pública de 30 días hábiles y audiencia por un periodo de 2 meses a las Corporaciones locales afectadas.

izango da, eta ukitutako toki-korporazioentzako entzunaldiaren izapidea 2 hilabetekoa.

### Segunda

Los proyectos cuya tramitación se hubiera iniciado con anterioridad a la fecha de entrada en vigor de la presente Norma Foral se aprobarán de acuerdo con la normativa que sirvió en su momento como cobertura legal.

### Bigarrena

Foru arau hau indarrean jarri aurretik izapidetzen hasi diren proiektuen kasuan, dagokion garaian zegoen lege-estalduratzat hartu zen araudiaren arabera onartuko dira.

### Tercera

En relación con los mapas de ruido, delimitación de sus correspondientes servidumbres acústicas, y planes de acción en materia de contaminación acústica que, a partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral se vayan a aprobar por las diferentes Administraciones competentes, así como para el caso de que se proceda a la modificación de cualquiera de los mismos, y siempre y cuando el contenido de estos instrumentos venga referido, en cualquier medida, a cualquiera de las infraestructuras de transporte de titularidad foral, se deberá, mediante remisión del expediente de aprobación del mapa de ruido y delimitación de servidumbre acústica, así como remisión del expediente del plan de acción, y previamente a la aprobación definitiva de los mismos, dar trámite al Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Bizkaia, el cual emitirá el correspondiente informe preceptivo, en el plazo de un mes.

Los mapas de ruidos se revisarán cada 4 años, entendiéndose por revisión la elaboración o corrección en su caso de los mapas de ruido por el órgano competente.

### Hirugarrena

Zarata-mapei, dagozkien zortasun akustikoen mugei, kutsadura akustikoaren arloko ekintza-planei —foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera administrazio eskudunek onartu behar dituzten planak— eta tresna horietan egin beharreko edozein aldaketari dagokienez, baldin eta tresna horiek edozein neurritan ere foru titulartasuneko garraio-azpiegiturei buruzkoak badira, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailari zarata-mapa onartzeko eta zortasun akustikoa mugatzeko espedientea nahiz ekintza-planaren espedientea bidali behar zaizkio, behin betiko onartu aurretik. Sailak dagozkion izapideak egingo ditu, eta nahitaezko txostena emango du, hilabeteko epean.

Zarata-mapak 4 urterik behin berraztertuko dira. Berrazterketatzat ulertuko da horretarako eskumena duen organoak zarata-mapak egitea edo, behar denean, zarata-mapak zuzentzea.

## DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones forales de igual o inferior rango del ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia se opongan o contradigan a lo establecido en esta Norma Foral.

En lo no dispuesto en la presente Norma Foral, se estará a lo establecido en la Ley Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco y demás normativa que resulte de aplicación.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lurralde Historikoaren maila bereko edo beheragoko foru xedapenak indargabetuta geratzen dira, baldin eta foru arau honetan xedatutakoari kontra egiten badiote edo kontrakoa ezartzen badute.

Foru arau honetan xedatuta ez dagoenerako, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen Legea eta aplikatu beharreko gainerako araudia bete behar dira.

## DISPOSICIONES FINALES

### Primera

La Diputación Foral de Bizkaia aprobará cuantos Decretos Forales resulten precisos para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

### Segunda

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.”

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa

Bizkaiko Foru Aldundiak foru arau hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren foru dekretu guztiak onartuko ditu.

### Bigarrena

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.”